

# K...eta! Kitto!

2017-IV-21

1.012 zkia.



## 80nbardaketa gogoan

**Intxortako  
ERRESISTENTZIAK**  
**80**urte

**ELGETA APIRILAK 20-23**  
**PERTSONA ERREPRESALIAETUEI OMENALDIA**  
Dokumentalak, hitzaldiak, bisita gidatuak, antzezlanak...

**APIRILAK 23, igandea**  
11:30 Intxortako borroken errekreazio herrikoia  
13:00 1936-37ko gudan eraildako elgetarrei aitortza  
14:30 Bazkari herrikoia

Egitarau osoa: [elgeta.eus](http://elgeta.eus)



ELGETA  
UDALA



INTXORTA 1937  
KULTUR ELKARTEA



# gremioen gida



943-206776



## ANTENAK

### BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37  
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

943 530 356  
688 674 242  
669 934 964

### electricidad iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com



TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922

## IGELTSEROAK



Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA  
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak  
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea  
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



## ERAIKINEN MANTENUA

### I.T.E.

INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS



ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 30

AJT zihurtasuna S.L.P.  
Barrena, 6 - behea ezk.

## KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

### ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-  
605 713 168 943 744 019

## GARBIKETAK

### Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082  
Mobila 688 609 171  
www.multiservicioseibar.com Barrena, 21-1.F



## ELEKTRIZITATEA

### egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac  
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62  
630 95 73 45  
943 20 06 97



Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta  
mantenimendua

## PINTURAK

### baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21  
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com



Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

### VICTOR GONZALEZ FRAIZ

PINTURA  
OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
victor-fraiz@hotmail.com



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**

erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**

elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**

Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belauztegi.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO IRUDIA:**

La Domenica del Corriere (1937)  
/ Ane Izarra

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LISTOPASAU.**- Azkar ustekoa, gaztelera-zko 'listillo' 'que se pasa de listo'. "Gaur egunian listopasau asko dago baztarretan".

**LITS.**- Haizeak erraz eroaten duen ile arina, erropetan eta itsatsita egoten dena. Gaztelera-zko 'pelusa'. "Litsaz beteta daroiazu soiñekua".

## astean esanak

"Madrilgo Amerikako Etxean nagoela aprobeztatuta, honakoa esango dizuet: Espainia ez zen inoiz kolonizatzailea izan, ebanjelizatzailea eta zibilizatzailea izan zen. Inperio aztekaren desagertzeagatik penatzea II. Mundu Gerran nazien porrotagatik penatzea bezala da. Nork esan dezake garai hartako espainiarrak gizakien triskantzian jardun zutenik? Amerikara joan ziren espainiarrak aspalditik zituzten gorteak, katedralez betetako herrialdean bizi ziren eta artean Mendebaldeko erreferentea zen"

(JOSE ANTONIO SANCHEZ, RTVEKO BURUA)

"Onartu dezagun: gizonok klase sozial bat gara eta egiten ditugun gauzak klase sozial horren baitan egiten ditugu; beraz, gustoko edo ez, erasotzaile horiek gurekoak dira. Gainditu beharreko gizontasun ereduak guardia zibil bortxatzailearena ezin da izan. Nahi ez dugun gizon eredu muturrera eramaten dugu, gutariko gehienak hortik ateratzeko, gure marra gorriak zeintzuk diren eta egunean zenbatetan zeharkatzen ditugun pentsatu ordez. Gizonok garbi izan behar dugu feminismoa ez dela gurea; guretzat edo gurekin izan daiteke. Noizko 'ni ez naiz horrelakoa' alboratu eta gure ardura gure gain hartu?"

(JOKIN AZPIAZU, SOZIOLOGO ETA EKINTZAILEA)

"Amatasunaren subrogazioa legeztatzeak emakume txiroen esplotazioa besterik ez du ekarriko. Emakumeek beti hazi dituzte umeak sabelean eta gero mundura ekarri, beste batzuk eurei kentzeko. Sasoi baten euren jauntxoek haurduntutako neskamek derrigortuta zeuden umeak etxeetako andrearen esku lagatzera. Gerraostean preso politikoei lapurtzen zizkieten, goi mailako familiei emateko. Geroago, umeen lapurketa negozio ere bihurtu zuten, tradizio bihurtzeraino. Horregatik akaso klonazioaren aurka dauden bioetika batzordeei ez die ardura hazteko ganadu bihurtu nahi dituzten pertsonen duintasunak?"

(ALMUDENA GRANDES, IDAZLEA)



IKER ARANBERRI

## Jarrai dezagun abesten

Iragan apirilaren 8an une historikoa bizi izan genuela entzun dugu hamaika aldiz, kalean nahiz hedabideetan. ETAK bere arma guztiak entregatu zituen eta ekintza hori irudikatu zuten milaka herritarrek Baionan egindako ekitaldian. Hainbat hamarkadatak azken keinua eta ikurra izan da. Abesti baten amaiera, abesti berri baten lehen nota ekarriko diguna. Amaitu berri den abestia desafinatzen saiatu dira hainbat alderdi eta erakunde, baita tarteka musika larregi jaisten edo igotzen ahalegindu ere, abestia desitxuratu nahian. Gizarte zibila ordea, elkarrekin abestuz, zaratari eta desitxuraketari gailendu zaio, abestiari amaiera duin eta bateratua emanaz. Abestia amaitzean, diskak kanta berri bat ekarriko digu. Ez dakigu dantzagarría ala lasaia izango den, baina badator. Eta gero beste bat etorriko da, geroa etenik gabe luzatuz. Gure abestiak izango dira, guk geuk aukeratutakoak, gure erabakien jabe, herri gisa elkarrekin abestuz gutxiago desafinatuko dugulako, asko eta asko oraindik ere musika jaisten eta igotzen ahaleginduko diren arren. Mikel Laboak beti bezain fin azaldu zuen 'Martxa baten lehen notak' abestiko pasarte batean: *Inor ez inor menpekorikan / nor bere buruan jabe / herri guztiok bat eginikan / ez gabiltz gerorik gabe.* Adi. Martxa berri bat datorrela diosku lehen nota batek. Entzun lasai, edo abestu indartsu, baina gozatu musikaz eta abesti berri honetaz.

## Etixerik-etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzailliak sendagaixak hobeto erabiltzeko programia

Aurreko astian aurkeztu eben Osasun Saillak, Gipuzkoako Sendagillien Elkartiak eta Eibarko Udalak helburu horrekin alkarrekin biharrian jarduteko siñatutako programia. Programan EAEko 140 udalerrik eta 690 farmaziak hartzen dabe parte dagoeneko. Lankidetzaz horren onurak jasoko dittuenen %93 inguru sendagai asko hartzen dittuen pazientiak dira (10 pilula egunian, batz bestea) eta euretako %42 etxian bakarrik bizi da, etxerik-etxeko laguntzarekin. Udal bakotxeko Gizarte Zerbitzuen zuzendaritzak aukeratzen ditu parte-hartzailliak eta, ondoren, hamabostero edo astian behin botikarixak dosi personalizauak preparauko ditu.

Iñaki Betolaza Eusko Jaurlaritzako farmazia zuzendarixak esandakuaren arabera, "gaitz kronikuak dittuen zaharren %50'60k ez dabe tratamendua bihar dan moduan betetzen". Hitzarrena siñatzeko ekitaldixan Maria Etxebeste Gipuzkoako Sendagillien Elkarte Ofizialaren presidenteordia eta Miguel de los Toyos alkatia egon ziran. Osasun Saillak finantziatutako programiak 300.000 euroko aurrekontua dauka.



asteko  
533.585  
datua

euroko negozio-bolumena lortu dau BNI (Business Network International) Armagin taldiak, lehen urtia bete aurretik. 35 kideekin ekin zetsan bidia eta gaur egunian 46 kidek osatzen dabe. Euren artian 860 erreferentzixa alkartrukatu dittue.

## Gure Esku Dagoren herri-galdeketerako bozka aurreratua astelehenian hasiko da

Eibarko Gure Esku Dagok deittuta maiatzaren 7xan egingo dan herri-galdeketeran botua emon nahi dabenendako erreztasunak eskintzeko asmuarekin, egunian bertan bozka emon ezin dabenendako botua aurretik emoteko aukeria egongo dala emon dabe aditzera. Datorren astelehenian hasitta martitzen, eguazten eta barixakuan eta maiatzaren 2, 3 eta 4an Arrate Kultur Elkartera jua leike botua emotera, 19:00etatik 21:00etara. Eta apirillaren 29xan eta maiatzaren 5ian be Arrate Kultur Elkartian egongo dira, bozkak jasotzeko prest, baiña 19:00etatik 21:30xeta-

**Hitzaldia**  
Eibarren

**Apirilak 27**  
19:00etan  
Armeria eskolako areto nagusian

// Herri galdeketak eta erabakitze eskubidea //

**Garbiñe** Biurrun  
**Juan Jose** Ibarretxe  
**Mario** Zubiaga

Moderatzailea: **Jon Telleria**

7. maiatzak **Debabarrenan erabakiko dogu!**

ra. Eibarren egingo dan galderia haxe izango da: "Euskal errepublika bateko herritarra izan nahi dozu?". Edozelan be, galdeketeran inguruko informaziñua jendiari emoteko bixar 12:00-xetan agerraldixa egingo dabe Untzagan. Horrekin batera, datorren asteko eguenerako hitzaldixa antolatu dabe, 19:00etan Armeria Eskolako aretuan. "Herri galdeketak eta erabakitze eskubidea" izenburuari jarraituta, Garbiñe Biurrun, Juan Jose Ibarretxe eta Mario Zubiagak egingo dabe berba, Jon Telleriak gidatutako solasaldixan.



## Jende Xumearen txosna, tonbola eta jolasak hartuko ditu Untzagak bixar



Jende Xumea Eibarko taldekuak bixar egun osuan egongo dira Untzagak, udan Boliviako haur eta gaztekin biharrera juango diran boluntari-kuendako dirua batzeko asmuarekin. Horretarako 11:00etatik aurrera txosna zabalduko dabe, bidezko merkataritzako produktuak saltzeko mahaia ipiñiko dabe eta tonbola bat be egongo da, sari morduarekin: arropak, etxerako tresna elektrikuak, txarrikak, bisitak, jostailuak... Gaiñera, 11:00etatik 14:00xetara bittartian umiendako jolasak preparau dittue.

## Ernesto Etxaberen logotipuak irabazi dau Eibarko Dendarien Elkartearen lehiaketia

Eibarko Dendarien Elkarteak "Nik Eibarren erosten dot" goiburuari jarraituta antolatutako logotipo lehiaketia Ernesto Etxabe Arantzibia eibartarrak irabazi dau, epaimahaixak aho batez hala erabagitta. Irabazliak 300 euroko erosketa-txartela jaso eban Vanessa Torre alkarteko presidentaren eskutik.



Vanessa Torreren eskutik jaso zeban Ernesto Etxabek erosketa-txartela.



## autuan

### KANTABRIAKUEN AFARIXA

Kantabriako Etxeko bazkide eta lagunak afarixa egingo dabe datorren asteko barixakuan, 22:00etan. Afarixa alkartiak Jardiñeta kalia dakan tabernan izango da eta jua nahi dabenak han emon biharko dau izena.

### AMAÑAKO JAIXAK-EN SARIXA

Amañako Jaixetako batzordiak saldutako errifan, zenbaki saritua 6340 izan da (apirillaren 12ko ONCE-ren zozketako azken lau zenbakixak). Irabazliak herriko hainbat establezimendutan gastatzeko erosketa-txartelak eskuratuko dittu.

### EKINGUNEREN PINTXO-POTIA

"Negozio proiektuen kudeaketan 'hodeiari' etekina nola atera?" izenburuari jarraituta, Ekingune alkartiak pintxo-potia antolatu dau datorren asteko egunerako. Kultun izango dan saia 19:00etan hasiko da. Ordu erdi geruago hitzaldixa izango da eta, ondoren, 21:00ak aldera eztabaidarako tartia, pintxopotian. Izena emoteko ekingune@ekingune.com helbidera idatzi leike edo 943 208 420 telefonora deittu.

**Funeraria-Ehorztetxe Mugica**

**EIBAR**  
Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean  
24 orduko zerbitzu iraunkorra  
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO **funeuskadi**

## MAITERE ALBERDI OYANGUREN

(2017/IV/18)



Zuk emandako heziketaren oinarria dut nirekin  
Une gogor hau gaindituko dut zure oroitzapenekin  
Goxoa eta leiala beti sentimendutan atsegin  
Gaixotasunak eraman zaitu nahiz gogor borrokan egin  
Eskerrik asko guztiagatik bi musu goxo hauekin.


**LEJARDI - ORTIZ DE GUZMAN FAMILIA**



## Juanita Unzuetak eta Maritxu Olarrak laga gaittue hillabete honetan

Oin dala urte batzuk gure astekarixari alkarrizketiak emondakuak ziran bixak, herrixan ezagunak eta biharrin ondo saiatutakuak. Juanita Unzueta ume jua zan Errusiara, gerraren eragiñez, eta handik bueltan dantza-eskolia jarri zeban martxan. Bera izan zan aitzindarixa ballet klasiak eskintzen gure herrixan eta Ballet Eibarres izeneko taldiarekin jardun zeban irakasten erretirua hartu arte. Maritxu Olarra, bestalde, donostiarra izan arren, gazte-gaz-

tetatik Arratera etorri eta "Don Pedro-nian (On Pedro Gorostidi) zerbitzen" egon zan, 60 urtetan Arrateko lekukorik zuzenena izateko: elizako seroria izatiaz gain, elizpeko dنداتxuaren arduria be izan zeban. Juanita Unzuetak hillaren 6xan laga zeskun, 95 urterekin, eta Maritxu Olarrak 17xan, 88 urterekin. Batak zein bestiak Badiharduguren Euskal Herriko Ahotsak-en proiektuan hartu zeban parte, gure patrimonixuaren berreskuratze lanian.



## Eibar Rebistia itxurabarrittuta kaleratu dabe

Eibar Rebistak sasoi barriko 136. zenbakixa kaleratu eban aurreko astian. Aldizkarixak hainbat aldaketa izan dittu azken aldixan, oin arte zuzentzen eban Margari Olañetak lekukua erredakziño-kontseillua osatzen daben laukotiaren esku laga dau eta. Olañetak aurretik On Pedro Zelaia aldizkarixaren sortzaillak eta Jose Mari Kruzeta bere senarrak egindako bidiari jarraituz osatu dau 14 urteko ibilbidia. Aldizkarixak 63 urte betetzen dittuan honetan, lehen aldiz koloretan kaleratu dabe eta diseñuan be hainbat aldaketa izan dittu; bestalde, oin arte bi hillian behin kaleratzen zana aurrerantzian hiru hillian behin kaleratuko da. Laugarren sasoi honetako hurrengo zenbakixa Sanjuanetarako emongo dabe argittara. Astekarixaren helbide barrixa, bestalde, Estaziño 17 da.

## LGTBI afarixa antolatu dabe Eibarren

Hurrengo astebururako, apirillaren 30erako afarixa antolatu dau Gehitu alkartiak Eibarren. Ipur sagardotegixan izango da afarixa, 20:30xetan eta menua hauxe da: patata tortilla, ensaladia eta rabak. Preziua 12 eurokua da (10 eurokua Gehituko bazkidiendako). Juan nahi dabeneri izena lehenbailehen emotia eskatu dabe antolatzaillak, astelehenerako jatetxekueri zenbat jende juango dan ziheztu bihar detselako, erre-serba ixteko. Izena emoteko edo informaziñua eskatzeko eibar@gehitu.org helbidera idatzi leide edo, bestela, 671152997 telefonora deittu.



**B. Sarasketa, 1 ac** **943 12 82 31**  
*Kafea, opilak, ogia,  
 pintxoak, ardoak...*  
 Gozatu **EIBARKO**  
**PREZIORIK ONENEKIN!**  
**KAFETEGIA OKINDEGIA**  
**SUTLINDO**  
**LABADEROKUA Egunero 06.00etatik aurrera**

**San Andres**  
**Gozotegia**  
 ● **tartak**  
 ● **enkarguak**  
 ● **etxera**  
**Bidebarrieta, 28**  
 ☎ 943 20 79 73

## LAN DEIALDIA ELGOIBARKO IZARRAK BEGIRALE TITULUA DUTEN HEZITZAILEAK BEHAR DITU

### ESKATZEN DA:

- Begirale titulua izatea.
- EGA edo euskara maila altua izatea.

### BALORATUKO DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea.
- Aisialdian lan-eskarmetua izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea
- Hezkuntza Premia Behar Berezietako ikasketak edota esperientzia izatea

**Curriculumak AURKEZTEKO epea: apirilak 28, ostirala.**  
**kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus** edo **943 741 626 (Amaia).**





## Foru Aldundixak omenaldixa egin detsa Carmelo Urdangarini

Apirillaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundixak Eusko Ikaskuntzako bazkidia omendu eban, "Antzinako Lanbideak" bilduma-

ko 14. bolumena kaleratziarekin batera. Gure kolaboratzaillia izandakua "Eskulenen Maisu" izendatzen daben diplomía jaso eban Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreako sailaren eskutik, "artisautzaren alorrian egindako ikerketa eta dibulgaziño-lanagaittik". Hainbat artisaren testigantzak bildu ditu Urdangarinek 1996az geroztik Foru Aldundiaren bidez, baiña lehenagotik be jardun dau horretan, beste batzuk eterata: lehelengua Laboral Kutxaren bidez eta ondorengua Gipuzkoako Bazkunde edo Cámara de Comercio dalakuaren eskutik. Aittatutako liburuetan 220 ofiziotik gora deskribatu ditu debarrak. Oin Carmelo pattal dabil eta, etxetik urtetzen dan arren, dakan gaitzak ez detsa lagako horrelako kontuekin segitzen.



## Zaporeak proiektukuen esker ona

Euskal Herriko Itzuliaren harira Zaporeak taldiak antolatutako pintxo-potiak arrakasta haundixa euki eban eta egun bixetan euren gana jo eben eibartarrerri euren esker ona azaldu nahi detse, "txosnan zeozer hartuta Greziako errefuxiatuendako emondako laguntasunagaittik". Horrekin batera, egun bittan pintxo-potia egin ahal izateko 1.000 pintxo musutruk preparau zittuen tabernarixeri be eskerrak emon nahi detsez, "proiektuari eskindutako babesarengaittik". Bestalde, barixakuan eta zapatuan saldu zittuen erri-fako zozketan, sarixa daken zenbakixak honek izan zirala emon dabe aditzera: barixakuan zozketatutako maillot horixa, Artzai Gazta gaztaia eta Saizar sagardo-kajia 95 zenbakixari egokitu jakozen; Eibar foball taldeko kamisetia, barriz, 64 zenbakixari; eta zapatuan zozketatutako maillot horixa, Artzai Gazta gaztaia eta Saizar sagardo-kajia, 82 zenbakixari. Irabazliak 688676600 telefono zenbakira deittu biharko dabe sarixa jasotzeko.



Antolatzaille eta kolaboratzailliak argazkixa etara eben alkarrekin.

# II. Gin Tonic

lehiaketa

Maiatzaren 5etik 7ra  
Maiatzaren 12tik 14ra

**Finala:**  
Maiatzaren 19an  
Untzaga plazan

**euskeraz!**  
primeran

Informazioa eta oinarriak:  
[etakitto.eus/berbetan](http://etakitto.eus/berbetan)  
943 200918





## Bioenergixari buruzko jardunaldixak

Euskal Herriko Unibersidadiaren Gipuzkoako Ingeniaritza Eskoliak bioenergixari buruzko jardunaldixak hartuko ditu hirugarrenez datorren astian, astelehen eta martitzenian. Egun bixetan hainbat adituk hitzaldixa emongo dabe unibersidade laboralian, 15:30xetatik aurrera. Astelehenian Abadiño udaleko Andres Fernandezek ekingo detsa programiari, "Plan de gestión de la biomasa. Uso de los recursos propios del monte municipal" izenburukuarekin. Jarraixan, 16:30xetan, Josu Azpitartek (Biotermiak) egingo dau berba, "Visión práctica y comercial del aprovechamiento con fines energéticos de la biomasa" izenburuari



jarraituta. Eta hurrengo egunian Energiaren Euskal Erakundeko Sergio Lopezek "Iniciativa de colaboración con Ayuntamientos, HAZI y EVE para el fomento de la utilización de biomasa con fines energéticos. Casos de estudio" hitzaldixa emongo dau. Programako azken hitzaldixa Hazi Fundaziñoko Iñaki Gerenabarrenarena ("La madera, un combustible de presente y futuro en Euskadi") izango da. Sarrera libria izango da, toki guztiak bete arte.



*Pedro Buitron Peruko konsula eta Amaia Gorostiza presidentia, Leire Gandiaga eta Neli Arretxe Egoaziako kideekin.*

## Perun ufalak kaltetutakueri laguntzeko babes haundixa jaso zeben Ipuruan

Aste Santu Aurretik Ipuruan jokatu zan Eibar-UD Las Palmasen arteko partiduan, txarteldegixan jasotako diru guztia Peruko hondamendixan laguntzeko bideratu dabe SD Eibar Fundaziñuaren bittartez. Txarteldegixan saldatukuarekin batera, neurketa horretarako zabaldu eben "0 lerrua" dalakuari esker batutakua be kaltetutakueri laguntzeko erabiliko da. Fundaziñotik azaldu dabenez, "eibararren eskuzabaltasun haundixa azpimarratu biharra dago, Ipuruara jende mordua jua eta saldu barik 250 sarre-ra baiño ez ziralako geratu. Gaiñera, ekitaldirako antolatua zan '0 lerruaren' bittartez be askok lagundu eben".

Armagiñak gonbidatuta, Euskadin Peruko konsula dan Pedro Buitron ministruak partidua palkuan ikusi eban, 14 urtian Piuran (Peru) laguntza emoten dabillen Egoazia GKE-ko bi kiderekin batera eta Amaia Gorostiza presidentiari Peruko gobernuaren izenian eskerrak emon zetsazen, "Eibarrek larrialdi egoera honetan eskindutako laguntza-gaittik", baita Egoaziako ordezkariexeri be, urte honetan guztietan egin daben biharrarengaittik. Partiduari esker batutako dirua be Egoaziaren bittartez bideratu dabe.



## Bigarren Errepublikia goguan

Urtero lez, apirillaren 14an inguruan hainbatek gogoratu nahi izan eben 1931. urtian gure herrixa Errepublikaren banderia udaletxian ipintzen lehena izan zala. Egun batzuk aurretik Gazte Komunistak Ermutik Eibarrera bittartian urtero egitten daben martxa egin eben, Untzagan ekitaldi politikuarekin amaitzeko. Sozialistak, barriz, Casa del Pueblo-ko balkoian ipiñi eben banderia eta atzo Sanchez Gordillo Marinaledako alkatiak hitzaldixa emon eban Portalean, Ezkerrak Berdeak alderdixak gonbidatuta.



## MARIA OLARRA OLAZAGIRRE

"MARITXU ARRATE"

*"Maritxu maittia, ama, amama... Zure maitasuna eta irrifar samurra gure bihotzetan egongo dira goxo-goxo betiko"*

ETXEKOAK

**BERE ALDEKO IRTEERA-MEZA HILAREN 30EAN (DOMEKAN), EGUERDIKO 12etan, SAN ANDRES ELIZAN OSPATUKO DUGU.**





Kantzerraren Aurkako Elkarteak (AECC) 2016ko urrian ireki zuen egoitza Eibarren. Bere ibilbidea, hala ere, luzea da gure herrian. Minbizia jasaten duten gaixoei eta senideei laguntza psikologiko eta soziala eskaini die eta, etorkizunera begira, apustua sendotu eta handitzeko asmoa dauka. AECC-k Ardantza 11ko pegoran du egoitza, eta Ainhoa Oregi langile sozialak eta Miriam Marquez psikologoak dihardute bertan.

## MIRIAM MARQUEZ eta AINHOA OREGI (Minbiziaren Aurkako Elkarte):

# “Hona etortzea positiboa izan da minbiziaren gaixoentzat eta euren senideentzat”



– Zer da, berez AECC?

**Ainhoa:** Elkarte honek minbizia duten gaixoei eta senideei laguntza ematen die. Laguntza psikologikoa eta soziala ematen diegu, eta baita boluntarioen laguntza ere. Arlo sozialean Gipuzkoa mailan eskaintzen denari buruz orientatu eta informatzen diegu: Dependentiaren Legea eta bestelako laguntza motak, adibidez. Bestetik, familiei dohainik eskaintzen diegun materiala daukagu hemen: ohe artikulatuak, gurpildun aulkiak, dutxarako eserlekuak, eta abar. Gero, boluntarioria arloaz ere arduratzen gara. Hainbat motako boluntarioria dago: adibidez, administratiboa; konpainia-boluntarioria deiturikoa, etxean eta ospitaleetan gaixoei konpainia egiteko; eta prebentzioko boluntarioria, urtean zehar egiten diren kanpainetan laguntzeko.

– Boluntario asko joan zaizkizue elkartera?

**A:** Bai. Egoitza orain dela hilabete gutxi ireki zen, baina boluntarioek urte askotan zehar egin dute lan Eibarren. Eskualdeko herri guztietan ditugu boluntarioak Soraluzen izan ezik, eta bertara heltzea da asmoa. Batzarretan parte hartzen duten bi pertsona klabe ditugu, eta herri bakoitzean 20 bat lagunekoa taldeak ditugu.

– Edozein izan daiteke boluntarioa?

**Miriam:** Konpainia-boluntarioria egiteko formakuntza egin behar da eta gero elkarrizketa txikia egiten diegu euren profila eza-gutzeko, baina bestela edozein izan daiteke boluntarioa hemen.

– Eta zuen zerbitzuak jasotzeko?

**M:** Minbizia edukitzea edo minbizia duen pertsona baten senidea izatea.

**A:** Miriamek, adibidez, gaitza detektatu berri diotenak jasotzen ditu, kolpea hain gogorra ez izateko.

**M:** Baita gaitza gairiditu dituztenak ere. Batzuetan bizitakoari erreparosioa egin behar izaten diote.

– Arlo psikologikoa nola lantzen duzue?

**M:** Bi arlo lantzen ditugu. Batetik, prebentzioa dago. Jendea kontzientziatzen dugu, azken finean minbizia existitu egiten delako. Gertu daukagun gaixotasuna da, arrunta da inguruko batek bizi izana, eta bizi-ohitura osasuntsuan kontzientziatzea da gure asmoa. Hori modu bitan lortzen saiatzen gara: eskoletan (programen bitartez) eta kanpainekin. Orain kolonaren kanpainarekin ari gara lanean eta Eibarren tailer bat egin dugu. Beste arloa interbentzio psikologikoa da. Lehen kolpean, gaixotasunean zehar eta, behar bada, dolu prozesuan arlo psikologikoa lantzen dugu senide eta pazienteekin.

– Dagoeneko egin dituzue tailer batzuk. Zeintzuk?

**A:** Martxoaren 9an bizi-ohitura osasungarri buruzko hitzaldia izan genuen Portalean.

**M:** Apirilaren 27an, bestetik, Oskar Trebiño sukaldariak tailer bat emango du Izarra elkarte gastronomikoan (izen-ematea doakoa da, 943202494 / bajodeba@aecc.es). Gaixo onkologikoen egokiak diren jakiak prestatuko dira.

**A:** AECC-k errezeta liburua egin du eta Oskarrek batzuk prestatuko ditu.

– Minbiziari nola egin ahal zaio aurre psikologikoki?

**M:** Zure bizitza urrututa ikusten duzunean logikoa da psikologo batengana jotzea.

**A:** Zure bizitza guztiz aldatzen da. Gu horretarako gaude, laguntzeko, baina ezin dugu jendea etortzera behartu, nahi dutelako etorri behar dira.

**M:** Denbora honetan ikusi dugunaren arabera, hona etortzeak oso eragin positiboa izan du gaixoengan eta euren senide gehienengan.

– Zer behar da minbiziari aurre egiteko?

**A:** Ikerkuntza. Elkarte honek diru kantitate handia ematen du horretarako.

**M:** Kontuan izan behar da gaixotasuna ahalik eta modu positiboenen hartzea me-sedegarria dela.





1



2



3



7



8

## 20. Korrika Eibarren 2017/IV/7



13



14



19



20



21



25



26



30




31



32

- 1) Uni Eibar Ermua
- 2) Armeria Eskola
- 3) Hankamotxak
- 4) Institutua
- 5) Amañako Jaiak
- 6) Mogel Isasi
- 7) Itzio
- 8) Astixa
- 9) Iosuren lagunak
- 10) AEK
- 11) Aspe
- 12) Eibar KE
- 13) Rugby Taldea
- 14) ...eta kitto!
- 15) LAB
- 16) Dendariak
- 17) Sostoa
- 18) Arrate KE
- 19) Klub Deportiboa
- 20) Gure Esku Dago
- 21) Legarreko Jaiak
- 22) Harrera
- 23) Mirentxin
- 24) San Andres
- 25) EH Bildu
- 26) EA./PNV
- 27) EGI
- 28) Mogel Gurasoak
- 29) Mogel Ikastola
- 30) Gazte Mugimendua
- 31) Urkizuko Gurasoak
- 32) Laboral Kutxa
- 33) Euskara Batzordea
- 34) Udal Langileak
- 35) PSE-PSOE
- 36) Tekniker







## Martxan da Gaztezulo bideo lehiaketa

Istoriok irudi bidez kontatzea gustatzen zaien horietakoak bazarete zorteko zaudete, Gaztezulo VIII. Bideo Lehiaketa abian da eta. Lehiaketan 16 urtetik gorako gazteek har dezakete parte, aurten grabatutako bideoekin. Lanak originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dira eta, horrez gain, laburrak: gutxienez minutu bateko eta gehienez 3 minutuko (kredituak barne) iraupena izan beharko dute. Gaiari dagokionez, berriz, ez dago mugarik. Antolatzaileen berbetan, *"nahi duzue-na konta dezakezue! Mota guztietako istorioak bilatzen ditugu, abenturak, amodioa, misterioa, beldurra, drama, komedia... Animazio filmak ere onartzen ditugu!*

*Irudimena askatu mugarik gabe!*". Bestalde, bideoak hizkuntz edukiren bat izanez gero (ahotsa, musika...) euskaraz izan beharko du. Lanak entregatzeko epea apirilaren 7an zabaldu zuten eta maiatzaren 26ra arte egongo da zabalik. Banaka zein taldeka aurkeztu daitezke lanak, nahi beste. Formatuari begira, berriz, .mov eta .mp4 formatuan bidalitako bideoak onartuko dituzte bakarrik.

### Nola parte hartu

Lehiaketan parte harteko gaztezulo.eus webguneko "Bideo Lehiaketa" atalera jo eta han topatuko duzuen formularioa bete behar da. Bertan, taldearen izena, taldeki-



deen izen-abizenak, herria, kontaktua, bideoaren izenburua eta deskribapen labur bat zehaztu beharko dira. Bideoak WeTransfer bidez (wetransfer.com) bidali beharko dira, galdizkaria@gmail.com helbidera. Jasotako bideoak Gaztezuloren YouTubeko kanalera igo eta gaztezulo.eus webgunean publikatzen joango dira, *"beraz, zenbat eta lehenago bidali, orduan eta aukera gehiago ikuslearen Saria irabazteko"*. Ikusleen Sariaz gain, hiru adituk osatutako epaimahaia lanak ikusi eta baloratuko ditu, aurkeztutako bideoen kalitate tekniko, originaltasuna eta sormena kontuan hartuta. Bideo onenaren egileak 1.200 euroko saria jasoko du, bigarren bideo onenaren egileak 300 eurokoa eta ikusleen boto gehien dituen lanaren egileak hainbat produktuz eta Gaztezulo materialez osatutako opari sorta jasoko du. Irabazleen izenak maiatza amaieran emango dituzte jakitera eta ekaineko sari banaketa ekitaldian hainbat sorpresa izango direla aurreratu dute. Beraz, animatu eta hartu kamera, sari potoloak zain dituzue eta!

## Indianokua gaztelekuaren

### 6. URTEURRENA

Muzategi kalean dagoen Indianokua gaztelekuak atek zabaldu zituela sei urte igaro dira eta, horren harira, gazteek euren sormena lantzeko aukera izango dute datorren astean, *"Astindu zure sormena!"* izenburuko tailerretan. Apirilaren 25, 26, 27 eta 28an izango diren saioetan poltsak, kamisetak, zapatilak... bakoitzak nahi duena diseinatuko du.



Zapatilak diseinatzeko aukera ere izango da.

Gaztelekua 12-18 urte bitarteko gazteentzako lekua da, *"lagunekin elkartzeko, hitz egiteko, gustora egoteko, musika entzun, etxerako lanak zein talde lanak egiteko, jendea ezagutzeko... Hilero, gazteekin batera programa antolatzen dugu: ikastaroak, lehiaketak, jolasak, jaialdiak, tailerrak, filmeak, sukaldaritza, txangoak eta beste hainbat"*, begiraleek diotenez. Astelehenetan itxita egoten da, martitzenetik eguenera 18:00etatik 20:00etara zabalitzen dute, barixakuetan 16:30etik 21:00etara, zapatuetan 17:00etatik 21:00etara eta domeka zein jai egunetan 17:00etatik 20:30era.

www.kolorlan.com

667 54 89 16

**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L

**Radio Eibar**

CADENA  
**SER**

**104,0 FM**

*Izadi*  
**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29




# 'Hiri martiria', historiari begietara begira

Ferdinando Raffaelli Aviazione Legionariako koronelaren eta Iginio Men-carelli 24. eskuadrako buruaren agindupean 1937ko apirilaren 24 eta 25ean Soriatik irten ziren Romeo RO-37 bis eta Savoia 79 hegazkinak Eibarko historia aldatuko zuten. Italiako 'Gezi Beltzek', Espainiako matxinatuen eskutik, herria goitik behera suntsitu zuten. Sei urte lehenago II. Errepublikak aldarrikatu zen tokira infernua ekarri zuten, egun bat geroago, apirilaren 26an, Mola jeneralaren tropek Eibar mendeant hartzeko.

'Hiri martiria' deitu zion prentsak Eibarri 1937ko bonbardaketaren ostean. San Andres parrokia eta eraikin gutxi batzuk geratu ziren bakarrik zutik, baina 80 urte pasa ostean, gauza batek tinko iraun du, memoriak. Etorkizunera pausoak emateko atzera begiratzen duen herria da Eibar. Beraz, hitzaldi, tailer eta kontzertuak eskainiko dira basakeriak gure etxeko atea jo zituela oroitzeko.

## Fusiren hitzaldia 25ean

Juan Pablo Fusi historialariak 'Reflexiones sobre la Guerra Civil' hitzaldia eskainiko du **apirilaren 25ean 19:30ean** Coliseoan. Madrilgo Unibertsitate Konplutensean historian doktorea, Oxfordeko Unibertsitatean filosofian doktorea eta New Yorkeko Unibertsitatean Honoris Causa da Fusi, eta



Espainia eta Euskal Herriko historia aztertu ditu gehienbat. Egun berean, 'gerrazibilaeibarren' telefono mugikorrenzako doako aplikazioan dauden hiri-ibilbideen aurkezpena egingo da. Eibarko gerra-frontearen historia ezagutzeko bisita gidatuak eskainiko dira audio-gida, bideo, testu, argazki, mapa eta bisitarietzako argibideen bitartez.

Apirilaren 25ean bertan, Ego-gain kalean (sasoi hartan O'Donell izena zuen kalean), Labaderokua gerra-babeslekuan bonba batek jo eta lurreen zulo ikaragarria egin zuen tokian eta, hura gogora ekartzeko, **joko bisual modukoa** egiten duen teknikaz baliatuz irudi bat montatuko dute.

## Hitzaldi dramatizatu ikusgarria

Bonbardaketaren 80. urteurrena gogoratzeko, 'Eibar 1937. 80 urte' izeneko hitzaldi dramatizatu eskainiko da **hilaren 28an Coliseoan 20:30ean** (sarrerak 5 eurotan). Bertan, Jesus Gutierrez historialariak, Nerea Arriola biolin-jotzaileak, Bira Dantza Taldeak, Koro Gazteak, Kezka Dantza Taldeak, Lekim animazioak, Itzamna akademiak eta bertako antzezleek hartuko dute parte.


Itzamnako Andoni Zabalak adierazi digunez, "ikustekoa izango da". Ordu bete eta erdian Eibarko historian hain garrantzitsuak izan ziren momentuak kontatuko dira, "modu ikusgarri eta entretenigarrian".

Zabala bera izan da bonbardaketaren 80. urteurrenaren kartelaren egilea. Hainbat argazki uztartu ditu bertan, San Andres elizarena ("zerbait ikonikoa nahi nuen"), Mola jenerala eta Francorena, eta berak irudikatutako zortzi hegazkin italiarrak.

## Klariona tailerra eta kontzertua

**Apirilaren 29an**, zapatuan, klarionekin 1936a baino lehenagoko Eibarko **planoak egiteko tailerra** egingo da Untzagan 16:00etatik 20:30era. Honen ostean, herriko plazak 'Eibar 1937. 80 urte' ikuskizuna jasoko du 22:00etan, doan.

Ekintzei amaiera emateko, Cielito musika bandak **kontzertu berezia** eskainiko du hilaren **30ean**, domeka, **12:30ean Coliseoan**. Kasu honetan, gerrako filmetako soinubandak joko dituzte.



*Ojangurenen argazkian ikusten duzuen zuloaren erreplika egingo dute martitzenean Ego-Gainen.*

## Intxortako erresistentziak 80 urte

Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak ere indar frankisten aurkako erresistentzia oroitzeko hainbat ekimen antolatuta dituzte. Atzo 'Memoriaren garrantzi' dokumentala aurkeztu zuten eta **gaur** Robert Egby eta Nicholas Rankin idazleek **hitzaldia** eskainiko dute **18:30ean Elgetako udaletxean**.

**Bihar, zapatua, 12:30etan '43°13'44"N' antzerkia** eskainiko da udaletxean, **18:00etan** Elgeta gerra garaian nolakoa zen jakiteko **bisita gidatua** egingo da, 18:30ean goizeko antzezlanaren errepikatuko dute eta **19:30ean Orkestra elektrotzarangak** kaleak girotuko ditu.

**Domekan**, bestetik, **10:00etan ongietorria eta hamarretakoa** egingo dute plazan. Ordu laurden geroago, 'Elgeta duela 80 urte' antzezpena egingo dute, 11:00etan gudari eta milizianoak frontera joango dira eta 11:30etan Intxortako borrokan errekreazio herritarra egingo da. 12:15etan, Elgetara martxa egingo da 'Frankismoaren inpuniteari tolerantziarik ez' lelopean eta 13:00etan 1936-37ko gudan faxismoak hildako elgetarrei omenaldia eskainiko zaie frontoian. Azkenik, herri-bazkariak gozatzeko aukera egongo da 14:00etan.

PSE-EEko zinegotzien aldeko 10 botorekin, EH Bildukoekin kontrako 3 botorekin eta EAJ-PNVren (4) eta Irabaziren (1) ordezkarien 5 abstentziorekin, Aste Santuko oporren bezperan, apirilaren 12xan onartu eban Udalbatzak 2017. urterako **33.078.571 euroko aurrekontua**, alderdixen artian piztu zan hiru orduko debatia eta gero. Aurreko urtiotan ez bezala, oinguan sozialistak ez dabe lortu oposiziñoko alderdixekin ados ipintzia, baiña, halanda be, akordixuak lortzeko bidia zabalik laga dabe.



## Urtiotan baiezko boto gitxien jaso daben UDAL AURREKONTUA ONARTU DA

**A**lkatetzaren memorixak jasotzen dabenari jarraituta, "aurrekontu-proiektuan, 31.739.021 euroko proposamena aurkeztu genduan. lazko ekitaldixan aurkeztutakuarekin konparatuz gero, %5 inguruko jaitsieria dago, hau da, 1'5 millioi baiño zeozer gitxiago dagoz. Aurreko ekitaldixan, 2016. urtekan, Eusko Jaurlaritzaren egonkortasun akordixuari esker eta EAJ-PNVk PSE-EEri onartutako zuzenketak lagun, herrixan inbertitzeko 2'5 millioi eurotako ezohiko ekarpena lortu zan. Baiña iazko Eusko Legebiltzarreko hauteskundiak eta Gobernua osatzeko EAJ-PNVren eta PSE-EEren artian egindako hitzarmenak ezohiko diru-sarrera horrek desagertzia ekarri dabe eta, horregaittik, diru-sarreretak aurreikuspenian automatikoki 2'5 millioi euroko jaitsieria dago". Gauzak holan, 2016. eta 2017. ekitaldixen artian konparatzen hasitta, 2'5 millioi horrek albo batera lagatzen badi ttugu, aurtengo aurrekontua berez iazkua baiño %3 haundixagua, hau da, ia millioi bat euro gehixagokua litzake.

Inbersiñuetan, atzera be obrak betetzen dabe zatirik inportantiena. Danera 5'7 millioi euro dagoz inbersiñuetarako eta partidarik haundiñak honetarako erabilliko dira: 2 millioi euro Errebalerako; 1'2 millioi euro herri barruko tokixak eta akzesibildadia hobetzeko (Jardiñetara igogaillua, Pagaegi inguruak), 622.000 euro Barrenako parkia konpontzeko; Eibarko Bizikleta Plazia eta eliza bittarteko errepidia oiñzkuendako moldatzeko; eta beste 250.000 euro kon-

ponketa txixixaguak egittek. Hortik kanpora be, herriko eskolak konpontzeko 195.000 euroko partida dago, 140.000 eurokua mendi inguruko azpiegituretarako, 100.000 eurokua asfaltuetarako, 60.000 eurokua Turismo bulegorako eta 125.000 eurokua ekipamenduetarako.

### EH Bilduren ezezkoa

**Gorka Errastik** EH Bilduren izenian egindako aurkezpenian, sozialistak aurkeztutako zirriborruan "nobedade gitxi" topau zittuela esan eban. Bere berbetan, "Udalian sartu giñanetik, urtero eskatu dogu ziñegotzixon dietak murriztia. Billera batera jua tiagaittik 313 euro jasotzia salatze modukua dala pentsatzen dogu eta, horregaittik, 60 euro tara bajatzia planteau dogu, barririk horrekin eibartarren premiñetarako 120.000 euro lortuko genduazen eta. Bestalde, aurtan ixa 600.000 euro erabilliko dira igogaillu eta batez be eskillara mekanikuen mantentze lanak pagatzeko. Kopuru ikaragarrixa da eta, konparaziñua egittek, 400 famelixa baiño gehixagori laguntzeko



Errebalek hartuko dittu inbersiñuen zatirik haundixena.

aurrekontuak jasotzen dabena bikoiztan dau. Horrekin batera, eta Plan Estrategikuarendako partidarik ez daguala ikusitta, gero eta argixago dakagu PSE-EEk kajoi bation gordeta lagatzeko asmua dakala. Edozelan be, zirriborruak badakaz guretako pozgarrixak diran pare bat kontu: aurtan IMESA likidau egingo da azkenian eta hori albiste pozgarrixa da, zulu bañio ez dan hori behin-betiko itxiko dabe eta".

Zirriborruari egindako kritikekin batera, ontzat emondakuak be azaldu zittuan: "EH Bilduren zuzenketak eta proposamen batzuk be jasota dagoz eta alde horretatik pozik gagoz egindako lanarekin: RGI dala kua jasotzen daben famelixetako umiak eskolatik kanpora egitten diran jardueretan parte hartzeko laguntzak, gaztieri etxia hartzeko emoten diran laguntzak, Coliseoaren Laguna txartela edo udalak EH Bilduk proposatutako Euskararen Plan Estrategikuarekin hartu daben konpromisua, adibidez". Eta, interbenziñua amaittu aurretik, Errastik oposiziñoko alderdixeri egin zetsen berba: "Irabaziri eta batez be EAJ-PNVri zera esan nahi detsuegu, udal politikan benetako eragiña euki nahi badozue eta benetan presentau deskuen aurrekontuarekin ados ez bazagozie, oposiziño guztiak bat eginda aurrekontu alternatibua aurkeztia litzake egokixena. Ointxe dakagu gure indarra erakusteko aukeria, oposiziñoko 11 kidien indarra gobernu taldiaren 10 kidien indarraren kontra erakusteko aukeria". Gauzak holan, eta aurrekontu pro-



posamenarekin ados ez daguzela argi lagatziarren, kontrako botua emotia erabagi ebela azaldu eban Errastik.

### EAJ-PNV eta Irabaziren abstenziñuak

**Josu Mendicute** EAJ-PNVren bozera-mailiak be aurrekontu proposamena "erronka estrategiko barikua" topau ebala esanda ekin zetsan bere azalpenari. Horrekin batera, herriko egoera ekonomikuari erantzun ahal izateko diagnostikua alkarrekin egitteko premiñia azpimarratu eban: "Ados ipintzeko derrigorra dakagu. Eibarko langabezia tasa larrizeko modukua da, lan barik 1.906 lagun dagoz, %15'4". Ekonomixari bultzada emoteko, bestiak beste, industria arluan enpresa txiki eta ertaiñeri lagundu bihar jakuela esan eban, "holan proiektu barriztatzaillak garatu ahal izateko". Horrekin batera, preparauta daguaz gaziak kanpora jua ez daittezen neurrixak hartzeko premiñia be azaldu eban.

## AURREKONTUAREN LABURPENA

<b>SARRERAK</b> .....	<b>33.078.571 €</b>	<b>GASTUAK</b> .....	<b>33.078.571 €</b>
ZUZENEO ZERGAK .....	8.224.394 €	PERTSONAL GASTUAK .....	10.946.465 €
ZEHARKAKO ZERGAK .....	262.000 €	ONDASUN ARRUNT ETAR ZERBITZUAK .....	8.751.473 €
TASAK ETA BESTE ZERGAK .....	1.292.144 €	FINANTZA GASTUAK .....	159.879 €
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK .....	19.189.419 €	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK .....	5.077.700 €
ONDARE SARRERAK .....	99.000 €	KREDITUA ETA BESTE USTEKABEAK .....	1.360.000 €
INBERTSIO ERREALEN BESTERENGAN .....		INBERTSIO ERREALAK .....	5.624.180 €
KAPITAL TRANSFERENTZIAK .....	234.500 €	KAPITAL TRANSFERENTZIAK .....	150.000 €
FINANTZA AKTIBOAK .....	32.800 €	FINANTZA AKTIBOAK .....	35.200 €
FINANTZA PASIBOAK .....	32.800 €	FINANTZA PASIBOAK .....	973.671 €

Bozera-maille jeltzaliaren berbetan, "PSE-EEK merkataritzan oiñarritzen dan eredu bultzatu nahi badau, horretarako neurrixekin ez dau asmatu". Ildo horretan, hainbat proposamen ekarri zittuan gogora: aparkalekua (seiñalizaziñua hobetzia, hamen bizi diranendako muga bako TAO, geltoki intermodalaren inguruko azterketa, parkiñak Matsarixa, El Casco, Jardiñeta edo Erreka-

txun, espaloiak zabaltzia eta aisialdirako guñiak preparatzia, bestiak beste.

Udalak holakuak egitteko ahalmen ekonomikua badakala esan eban jeltzaliak: "Bai aurrekontuan daguan 3'2 millioiko aldiarengaittik, baita gordetzen segitzen daben 8'1 millioiko soberakiñarengaittik. Dirua egon badago, baiña badirudi hori kudeatzeko ahalmenik ez daguala edo ilusiñorik ez dakela". Negoziaziñuetan ados ipintzeko gauza izan ez zirala eta, "porrota" adjetibua erabili eban: "Ados ipintzeko asmua eukitta be, parian horma bat topau dogu. Negoziaziñuari taldien artian banatzeko 1'3 millioi euroko mugak ipiñi detsez eta holan nekez ailegau leike ezertara". Edozelan be, aurrekontua onartzeko plenua nahikua atzeratu zala eta, azkenian alderdixak absententzia erabagi ebala gaiñeratu eban, "traba gehixago ez ipintziarren eta are gehixago ez luzatziarren".

**Maria Jesus Agirre** Irabaziko ordezkari-xak bat egin eban oposiziñoko ordezkari-xak bere aurretik esandako guztiek, "bere burua islatuta" ikusten ebala eta. Horrekin batera, berarendako lehen negoziaziñua izan zala azalduta hasi zan berbetan: "Neretako hauxe izan da aurrekontuen inguruko lehen negoziaziñua eta ezin neike esan esperientzia ona izan danik, kontrakua baiño: ez des-te kasurik egin eta aurkeztu nittuan proposamen guztiak aldatu bihar izan nittuan". Gauzak holan, berak be abstenziñuaren bidia hartzia erabagi ebala esan eban.

Esandako guztiak entzun eta gero, **Miguel de los Toyos** alkatiak lehelengotik zekan asmua "betiko moduan ados ipintzia" zala azaldu eban. Halanda be, bere berbetan, "oposiziñuak aurkeztutako zuzenketak oso altuak izan dira, iazkuak baiño bost aldiz altuaguak". Hori dala eta, bidian ados ipintzeko beste batzuetan baiño traba gehixago topau zittuela esan eban, baiña edozelan be oindiok berbetan segitzeko prest zeguala gogora ekarri zetsen oposiziñoko ordezkari-xeri, "ahal dan neurrixan gauza batzutan ados ipintzeko prest segitzen dogu eta".

## diru-sarrerak

### Transferentzia arruntak .....19.189.419 €

#### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:

Udaleraiko Foru Fondoak .....	17.445.553 €
Etxez-etxeko laguntza .....	274.716 €
Antzerki Jardunaldiak .....	18.000 €
Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia .....	15.000 €
Berdintasunerako laguntzak .....	13.680 €
Antzerkia eta Musika .....	13.000 €
Museoa .....	10.000 €
Gazteria Sailari dirulaguntza .....	9.000 €

#### EUSKO JAURLARITZA:

OLH Udal ikastetxea .....	306.200 €
Gizarte larrialdiarako laguntzak .....	305.687 €
HABE .....	293.000 €
Lanbide Enplegu Plana (eskualdea) .....	175.169 €
Lanbide Enplegu Plana (bertakoa) .....	84.455 €
Drogomenpekotasunak .....	43.212 €
Gizarteratze programaren errefortzua .....	33.263 €
Etorikinendako Udal Plana .....	30.658 €
Kultura programa (antzerkia) .....	23.000 €
Kontsumo Bulegoa .....	20.000 €
Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia .....	15.000 €
Liburutegi fondoak hornitu eta berritu .....	9.808 €
Museoa .....	8.800 €
IVAP .....	5.500 €
Haur eta gazteen liburutegia .....	2.716 €

Itundu gabeko zergak .....

Antzerki Jardunaldiak (beste enpresak) ....

### Zuzeneko zergak .....8.224.395 €

Hiri-ondasunak .....	5.169.401 €
Ibilgailuak .....	1.560.000 €
Enpresa jarduerak .....	916.000 €
Hiri-lurrak .....	573.000 €
Landa-ondasunak .....	5.993 €

### Finantza pasiboak .....3.744.312 €

Tokiko sektore publikotik kanpo .....

### Tasak/Beste zergak .....1.292.144 €

Lurra eta lurpea erabiltzea .....	275.000 €
Isunak .....	180.000 €
Telekomunikazio operadoreak .....	90.000 €

Etxez-Etxeko laguntza .....	68.000 €
Eguazteneko azoka, barrakak .....	55.000 €
Hilerria .....	53.000 €
Bestelako sarrerak .....	50.000 €
Antzerki Jardunaldiak .....	46.000 €
Coliseoko ikuskizunetarako sarrerak .....	45.500 €
Premiamendeko errekaruak .....	45.000 €
Garabia .....	41.000 €
Euskaltzako matrikulak .....	40.000 €
Coliseoko zinea eta Portalea .....	40.000 €
Itxitako aurrekontuak .....	35.000 €
Aparkalekuak .....	33.500 €
Dibujo/Zeramika Eskolak .....	31.000 €
Oholtzak, mahaiak, aulkiak .....	27.000 €
Lurra erabiltzeko beste eskubideak .....	27.000 €
Argi indarra sortu .....	27.000 €
Agiriak egin .....	20.000 €
Musika kontratuak .....	20.000 €
Ordezko betearazpena .....	12.000 €
Antzerki kontratuak .....	10.000 €
Ikastaroak .....	4.000 €
Atestatuak .....	3.500 €
Museorako sarrerak .....	3.000 €
Berandutza interesak .....	3.000 €
GLLK itzultzea .....	3.000 €
Kale-kioskoak .....	2.138 €
Liburuak saldu .....	1.500 €
Portalea .....	1.000 €

### Zeharkako zergak .....262.000 €

Obren gainekoak .....

### Kapital transferentziak .....234.500 €

Gipuzkoako Foru Diputazioa .....	150.000 €
Jaurlaritza (Eskoletako obrak) .....	50.000 €
Jaurlaritza (Hirigune) .....	34.000 €

### Ondare sarrerak .....99.000 €

Hiri-finken errentak .....	59.000 €
Gordailuen interesak .....	40.000 €

### Finantza aktiboak .....32.800 €

Pertsonalaren aurrerakinak .....	20.000 €
Beste aurrerakin eta maileguak .....	12.600 €
Fidantzak itzuli (epe laburrera) .....	100 €
Fidantzak itzuli (epe luzera) .....	100 €



# + osasun gida

## Dentistak



**Arat**  
Hartz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hartz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. esk. Tfn: 943 20 18 51



**bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

Asko dira gure hartz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82



**EIBAR** HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfn: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplantak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



**hartz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



**IRAZABAL**  
clínica dental

Iribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfn: 943 20 85 52  
www.clinicalrazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGO**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplantak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

9 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
Konpromisoa

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa



**NATUR HOUSE**

Ainara Iriando Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa



**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfn: 943 20 34 46 Tfn: 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20  
Tfn: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

**M<sup>a</sup> Jose Ruiz de Porres DOKTOREA**

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

## Logopedak



**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk. 943 202691  
ahotslan@gmail.com

**Diagnostikoa eta tratamendua**

Degluzio atipikoa  
Disfonia  
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak  
Berba arazoak  
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN



## Logopedak

**Berba**  
Logopedia

**AIDA CORTA ANTÓN**

**Ebaluazioa eta tratamendua:**

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

**SAN AGUSTIN, 2-4** (B. sarr.)  
Mobila: 622-629-544  
logopeda@berba.es

## Okulistak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuaretea  
943 20 19 82

Oftalmologoak  
Centro de Oftalmología Avanzada

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinikia

• **Miopia ebakuntzak**  
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOA  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

**BIDEBARRIETA, 48**  
**EIBAR**  
943 203050

**ERDIKO KALE 54**  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia  
www.centroamets.com

**Coro Ortiz de Urbina**  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

**Maialen Hernandez**  
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

**Arantza Alvarez**  
Psikologoa-Sexologoa  
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com  
Tfnoa. 645 73 23 88

**KONTSULTAK:** Eibar / Durango / Donostia

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA  
HELDUENTZAKO  
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. .... EIBAR  
Zuberoa, 4 ..... ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkiu, 13 - behea  
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22  
moreno\_iciar@yahoo.es

**Itziar Moreno**  
PSIKOLOGOA  
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA**  
ANTSIETATEA  
AUTOESTIMA  
ARAZOAK

**EIBAR**  
URKIZU, 13 - 1.  
943 12 02 00

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA  
Orbeako dorreetan

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...  
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**



## Zerealak

**Jakina da antzinako zibilizazioetatik zerealen erabilera elikaduran;** zibilizazio askoren elikaduraren oinarri izan da elikagai hori. Gaur egun, gero eta gehiago entzuten da zerealen erabilera oso osasungarria dela, batik bat umeen gosarietarako. Zerealez osatutako gosariak orekatuak eta energetikoak direla. Kontuz, baina: hori ez da guztiz egia. Umeentzat, emakumeentzat, komunera joaten laguntzeko... komertzializatzen dituzten zereal askok eta askok euren konposizioan azukre kopuru izugarriak dituzte eta hori ez da batere osasungarria, ekar ditzazkeen osasun ondorioengatik. Hori dela-eta, zerealen inguruan azalpen eta argibide batzuk ematen saiatuko naiz.

Dauzkagun mantenugaiaren artean, zerealak gorputzari energia ematen dioten karbohi-



dratoen multzoan sailkatzen dira. Zereal bezela ezagutzen ditugun elikagaietatik, batzuk pseudozerealak dira. Honakoa da sailkapena: **Zerealak:** Oloa, arroza, garagarra, zekalea, artoa, artotxikia, garia (baita kamuta eta espelta ere) eta basartoa. **Pseudozerealak:** artobeltza, amarantoa eta kinoa.

Bulgurra eta cous-cous-a garitik sortzen diren elikagaiak dira. Kamuta eta espelta gari motak dira. Eta teff-a zereal gisa erabiltzen den landarea da.

Zerealak osatzen dituzten osagaien artean almidoia eta zuntza aipatu beharko genitzuke; beti ere zereal osoez edo integraletaz hitz egiten dugula kontuan hartuta. Ez daukate ia koiperik; beraz, kolesterolik ere ez. Zerealek ematen dizkiguten karbohidratoak almidoi erakoak izaten dira, organismoan glukosa eran deskonposatzen direnak. Karbohidrato horien absortzioa era mantsoan eta pixkanaka pixkanaka izaten da. Horregatik, odoleko azukre maila orekatuari eusten laguntzen dute, azukrez gozatutako beste era bateko karbohidratuak jaten direnean ez bezala. Zuntzari dagokionez, 100 gr. irin integralak 12 gr. zuntz ditu. Aldiz, 100 gr. irin refinaetuek 2 gr. zuntz besterik ez du.

Lehen esan bezala, nahiz eta karbohidratoen multzoan sailkatu, zerealek beste mantenugai batzuk ere badituzte. Adibidez, bitaminak, mineralak eta proteinak. Baina



jaione yeregi

TEKNIKARIA DIETETIKA ETA NUTRIZIOAN

proteina horiek ez dira hain osoak, beharrezkoak diren aminoazido batzuk falta zaizkielako (lisina, kasurako). Hori dela-eta, animalien erreinutik datozkigun elikagaiak ez jatea erabakitzerakoan, jatordu orekatu bat egiteko ezinbestekoa da lekaleak, zerealak eta berdurak jatea.

Zereal batzuk gluten izeneko proteina ere badute. Pertsona batzuk alergia diote proteina horri eta, horregatik, bakarrik gluten gabeko zereal eta pseudozerealak jan ditzakete: alde batetik, arroza, artoa, artotxikia eta basartoa; eta, bestetik, artobeltza, kinoa eta teffa.

Beraz, zerealek aportatzen dizkiguten mantenugaietaz baliu gaitezen ezinbestekoa da horien jatorria ezagutzeko eta eraldatuta dauden konposizioa zehatz-mehatz irakurtzea, ustez jaten gauden zerbaitekin ordez beste bait ez diezaguten sartu. Zereal oso edo integralak izatea da onena, hobe biologikoak, eta ahal bada erantsitako azukrerik gabekoak.

## Elkarrekin hazi

**Pertsonok haragiz, pentsamenduz, ideiez, emozioez eta jarrerez eginda gaude,** elkarlotutako gauza guzti horiekin. Emozioen sorreran pentsatzen badugu, haurtxoaren sorreraino jo beharko dugu, haren zaintzaileraino eta bien artean ezarritako azalez-azaleko harreman-

netaraino. Hor eta ez beste inon dago gure emozioetako esentzia. Harreman oinarrikoenean, zelan ukitzen, berba egiten, begiratzen, eusten eta laztantzen dioten arabera haurtxoa osatzen joango den mapan. Sentsazio horien amalgama izango da bere emozio-esperientziak lantzeko "materia". Lehenengo atsegin/ezatsegin sentsazioei jarraituz; gero, haurtxoa hazten doan neurrian, "emozio gailua" fintzen joango da. Sentsazioen errepertorioa zabalduko da, ez-tarri-soinu, keinu eta gorputz-imitzioz lagunduta, haurtxoak zeozer gustuko duen edo ez adierazteko erabiliko dituenak. Aipatutako elkarlotura hori, ezin oinarrikoagoa hasieran, fintzen



joango da esponentzialki konplexutasun handira heldu arte. Nortasuna deitzen dugun hori oso lotuta dago gure lehen harremanei. Umeek euren emozioak gordinki azaltzen dituzte, gutxinaka adierazpen hori moldatzen ikasi arte; horrela, zapladakoa "ez dut nahi" bihurtuko dute, lengoia menperatzen duten neurrian. Batzuetan helduek txarto interpretatzen dute jo eta bultzatzeko umeen oldarrak... nortasun adierazle gisa. Adin txi-

kietan ematen diren erreakzio naturalak dira, gutxi findutako emozioek eragindakoak, heldutasun faltak horretara bideratutakoak. Hortik gurasoen eta hezitzaileen garrantzia halako erreakzioak ulertzeko narratiba egiterakoan: *haserre dago, ez zaio gustatzen...* ahotsa eman, epaitu gabe, haurraren emozioak itzuli. Azken batean, txikiei emozioak doitzen laguntzea da ongarri onena haien garapen egoikienerako.



arrate garitaonandia

PSIKOLOGOA/PSIKOTERAPEUTA



## Patxi Usobiaga eskalatzailea muturreko zailtasunera itzuli da

Orain dela sei urte, lesio baten erruz, eskaladako goi mailako lehietako etapa itxi behar izan bazuen ere, ordura arte eskaladan den-dena irabazi eta arrokan punta-puntan ibilitako



eskalatzailearen irudia berreskuratu dugu azken aldian. Azken aldian surflariaren argazkia eskaini digun Usobiagak eskaladaren "pozoia" barne-barnean duela erakutsi digu berriro eta martxoaren 31n Olianen (Lleida) dagoen "Papichulo" bidea kateatu zuen; eibartarrak gradu horretan egin zuen bere azken 9a+ orain dela hamar urte sinatu zuen Siuranan, "La Ramblarekin". Papichulo eibartarraren hirugarren 9a+ zailtasuneko marra da. Patxi kirol eskaladan historia egindakoa da, bai arrokan bai lehiaketetan. Azken arlo horretan Mundu Txapelketa, Mundu Kopa eta hainbat lehia pribatu entzutetsu bereganatu zituen eta 2007an, Etxaurin bertan, "Bizi euskaraz"-ekin bistan munduan egin zen lehen 8c+ lortu zuen.



Luis, Inuirri helduta, Atxabalpeko entrenamenduaren ostean.

## Omenaldia Luis Jimenez Eibar FT-ren zaletu eredugarriari

Eibar FT-k baditu zaleak, baditu peñak eta orain, dagoen mailan egonda, inoiz baino jarraitzaile gehiago. Baina gutxi izango dira Luis Jimenezen fideltasun mailarekin taldeari jarraitzen diotenak. Bazkidea "betidanik", martxoaren 30ean 60 urte egin zituen Luisek eta urtebetetze egun hori inoiz baino bereziagoa izan zen: bere taldearen entrenamendua ikusteko aukera izan zuen Atxabalpen eta, amaieran, lehen taldeko jokalaria guztiak agurtzeaz gain, Asier Riesgok oparitu zion kamiseta jaso zuen. Jimenez zaletu oso berezia da: buru-paralisia du, tetraplejia gisako eraginarekin, eta gurpil-aulki motordunean joaten da partiduetara. Gorri-urdin koloreei dien maitasunak eta dituen arazoak gairatzeko erakusten duen kemenak bultzatuta, egunero joaten den Aspace zentroko monitoreek sorpresa antolatu zioten Eibarrek eta Las Palmasek



Ipuruan jokatu zuten partidurako. Luisek oraingoan betiko tribuna eta ogitartekoa palkoa eta bertako pintxoengatiik ordezkatu zituen oraingoan eta bere taldearen irteera aldageletako tuneletik ikusteko aukera izan zuen. Atsedendian klubaren urrezko intsignia jaso zuen Amaia Gorostiza presidentearen eskutik eta, aurreko guztia gutxi balitz, Las Palmaseko presidenteordeak Kanarietara joateko bidaia oparitu zion.

## Hiru partidu jokatu ditu Eibarrek astelehenetik domekara arte

Euretako bi lpuan izango dira; **erdikoa, bestalde, Gasteizen**. Astelehenean, hilaren 24an, izango du Mendilibarren taldeak lehenengo erronka, datorren denboraldian "Europar jokatzeko lehiaren barrukoa", eibartarrek baino hiru puntu gehiago dituen Athletic-en aurka. Asteburuko jardunaldiaren azken partidua izango da gaueko 20:45ean hasiko dena. Handik hiru egunetara, eguenean, Alaves bisitatuko du-



te Mendizorrotzan, arratsaldeko 19:30-ean hasiko den neurketan. Eta astea birbiltzeko, domekan jaitsiera postutik ihes egiteko borrokan diharduen Leganes igoberria hartuko du lpuan, 18:30ean hasiko den norgehiagokan. Behin astea "likidatuta", beste hiru partidu geratuko zaizkie eibartarrei Ligarekin amaitzeko.

## RAFAEL TREVIÑO IBARZABAL

(2017-IV-7)



**“ZURE IRRIBARRE ETA SAMURTASUNA BETIRAKO IZANGO DIRA GURE ARTEAN”**

**ETXEKOAK**

Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





## Ancares mendikatean izan dira Deporreko mendizaleak Aste Santuan

30 laguneko taldea abiatu zen hilaren 13an Leon eta Lugoko lurraldeak ikutzen dituen Ancares eskualderantz, Campa da Braña herrixkan gordetako ostatuaren bila. Otsoaren eta hartzaren bizilekua omen den ingurunean ez zuten halakorik ikusi: *"Hori bai, eper eleganteak apionian begietsi genituen"*, diote. Mendiigoerrazak dira bertakoak, oro har, *"eta paisaiaren edertasuna bertan sentitzen den bakardadea bezain atsegina"*. Udaberriari sartuta, *"zelai osoak narzisoz beteta"* ikusi zituzten eta kinarra, berriz, *"bere kolore bereziarekin"*.

Lehen egunean, Ancares mendatetik Miravalles tontorrera igo zinen "igoera errazean" (1.966 m.). Bigarrenegun, Cuiña mendikateko gailur garaiena (1.922 m.), Peña Longa eta el Mustallar egin zituzten, besteak beste, palloza izeneko eraikin berezietan betetako Piornedo herri txukunean amaitzeko. Hirugarren egunean, Campa da Brañatik irten eta, Tres Bispos (1.792 m.), Os Penedos eta Corno Maldito (1.848 m.)



Aste Santua bikain aprobetxatu duen mendi taldea Miravalles gailurrean. **Periko Iriondo**

igota, *"jaitsiera bedartsu eta atseginean"* Piornedora jaitsi ziren berriro. Eta amaitzeko, laugarrenegun, A Freita herrixkatik Peña Rubia (1.882 m.) igo eta, *"gorostiz beteta-*

*ko jaitsialdian"*, ostaturaino bueltatu ziren. Azken egunean, hilaren 17an, Ponferrada eta Leon atzean lagata, Sahagunen bazkaldu zuten etxera heldu aurretik.



## Hurrengo irteera hilaren amaieran

Hiru eguneko izango da Deporrekoen hurrengo irteera, apirilaren 29tik maiatzaren 1era arte, eta Pirinioetara joko dute Deporreko mendi batzordekoek. Enaren Bidea egiteko asmoa dute, Maulen hasi eta Belaguan amaituko den ibilbidea. Nafarroako eta Aragoiko bailaretatik Mauleko espartin fabriketara lanera zihoazen emakumeengandik hartu du izen hori bide horrek, *"udazkenean joan eta udaberriari itzuli, beltzez jantzita, bizipoza zeramate-lako eurekin"*.

Zapatuan, hilaren 29an, Mauletik Atharraztera joango dira, Maddalen gainetik (795 m.) pasatuta: *"Hor Uhaitzandia bailarako mendi bizkar biribilduz osatutako mendikatea zeharkatuko dugu"*. Hurrengo egunean Ligitik Santa Graziraino joango dira, tartean Izarbe (1.559

m.) gaudituz. Biarno eta Zuberoa bereizten dituen ipar-hesitik joko dute, euskal Pirinioetako gailurrik handienak eta amildegirik ospetsuenak ikusteko, eta Arbutiko basoetan amaitzeko. Eta maiatzaren 1ean Santa Grazi haranetik Belagoarako bidea egingo dute, 1.877 metroko Lakora gaudituta. Euhajarre haitzartean gora joango dira euskal Pirinioaren iparraldeko isurialean barna eta Nafarroa eta Zuberoaren arteko muga gainik gain jarraituko dute, Urdaiteko leporaino, jarraian Belagoako zelaietara iritsi arte.

Irteera horretan parte hartu nahi duten guztiek Klub Deportiboko egoitzan eman dezakete izena, martitzen eta eguenetan, 19:30etik 20:30era, edo 943 207044 telefono zenbakira deituta.

## Asola-Berrikoak Muñoz liderra estutzen ahaleginduko dira bihar Soraluzen

Soraluzeko San Andres bolatokiak hartuko du bihar 17:00etan Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola Txapelketako 48. edizioko jardunaldi berria. Ibai Diez eta Sergio Rodriguez Asola-Berriko ordezkariak berdinduta daude sailkapeneko bigarren postuan Floreagako Jose Muñozengandik hiru txirlora eta alde hori murrizten ahaleginduko dira. Muñoz onena izan zen, sei txirlorekin, 55 bolariren parte-hartzea izan zuen Elgoibarko San Migueleko jokatutako azken jardunaldian. San Migueleko Angel Ibarluzeak bost txirlo bota zituen eta laurekin geratu ziren, beste batzuren artean, aipatutako bi eibartarrak. Bikoteka liderrak dira azken hauek.



Ibai Diez bola jaurtitzen, Sergio Rodriguez atzean begira duela.



## Eibarren amaitutako Euskal Herriko Itzulia Valverderentzat izan zen

Movistar taldeko Murtziako txirrindulariak denboraldi hasiera ezinhobea berretsi zuen gure kaleetan ere eta, Arrateko helmugan nagusitzeaz gain, Itzulia ere bereganatu zuen. Alberto Contadorrek eta Jon Izagirrek osatu zuten azken podiuma eta Primoz Roglic-ek irabazi zuen erlojuz kontrako azken proba, azken sailkapenean bosgarren geratzeko, David de la Cruz-en atzetik. Zaletuen erantzuna bikaina izan zen eta, Eibarko antolatzaileen mesederako, probak interesa izan zuen azken unera arte, irabazlearen izena erabakitzeke zegoelako. Dato-

rren urteko Itzuliaren etapak oraindik guztiz zehaztu barik badaude ere, seguraski Eibarren hasiko da eta 2019koa, bestalde, gure herrian amaituko da berriro. Bestalde, aurreko asteko domekan Valenciaga Memoria-larekin hasitako txirrindulari astebeteak amaiera ezinhobea izan zuen hurrengo egunean, domeka goiz horretan jokaturako kadeteen mailako Eibarko Txirrindulari Elkarteko lehen edizioan. Goifiber-Godoy taldeko Xabier Isasa nagusitu zen, Pablo Gutierrezen eta Ander Blazquez-en aurretik, 165 txirrindularik parte hartu zuten lasterketan.



Xabier Isasa nagusitu zen Eibarko Txirrindulari Elkarteko lehen edizioan.



Katu Kale gogotik ari da saskibaloia harrobia lantzen.

## Katu Kalek saskibaloia eskola sortzeko lanean jarraitzen du

Gure herriko saskibaloia talde bakarrak kirol modalitate hori herrian sustatzeko lanarekin jarraitzen du eta, horren harira, klubeko entrenatzaileen formazioarako hitzaldia antolatu du, Gipuzkoako Saskibaloia Federazioarekin elkarlanean. Mikel Odriozola minibasketeko Gipuzkoako hautatzailea izango da hizlaria eta minibasketean jarduteko irakasgaiak eskainiko ditu. Bestalde, Easo Donostiako taldearen entrenatzaileak bi ordutan jardun zuen gaztetxoekin, bere ezagupenak eurekin partekatzen. Katu Kalek neska-mutuekin osatutako talde misto bi egin ditu, barixakuero 17:15ean entrenatzen dutenak Kiroldegian eta deialdia zabaldu die "kolaboratzeko interesatuta dauden guraso eta zaletuei" martitzen edo eguenetan 20:00etan egiten dituzten saioetara joateko.

Taldea, bestalde, maila igotzeko azken partidua galdu zuen Larramendiren aurka finalerdietan Ostadar kanporatu eta gero. Orain bi partidu jokatu beharko ditu Internazionalen aurka, han eta hemen, maiatzaren 7an erabakiko den kanporaketan.

**Helbidea**  
**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
**Orbeako dorreak / 1. solairua**  
**Tel: 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirurgia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Foto-depilazio
8) Pediatria	Unitatea
9) Psikiatria	18) Ginekologia <span style="background-color: green; color: white; padding: 2px;">BERRIA</span>
10) Neurologia	19) Psikologia <span style="background-color: green; color: white; padding: 2px;">BERRIA</span>

**CAPI** Bidebarrieta, 5  
 Tel. 943 201 547

**Aurpegi tratamenduak**  
**BETILE LUZAPENAK / LIFTING-A**  
**IA BETIRAKO MANIKURA eta PEDIKURA**

**LASER DEPILAZIOA** 30€ zona bakoitza  
 Hanka osoak + Izterondoak: 90€

**GORPUTZ TRATAMENDUAK** Powered by

**PROGRAMA BERRIAK**  
 Tratamendu drainatzaile eta birmodelatzailearen  
**4 saiorako bonoak**

**Masajeak** Pertsonalizatua

**Hileroko bonoak**  
 ... astero bakarrik 20 minutu eginez



Eibarko Usartza Txistulari Bandako kidea, atabalaria da German Ereña eibartarra. Musikazale amorratua, 15 urte eman ditu Isidoro Fagoaga tenore nafar ospetsuaren bizitza ikertzen. Fagoaga bezalako abeslari eta artista bat aukeratzea ez da kasualitate hutsa izan. Gaztetxoan zenean, Armeria Eskolako marrazki teknikoak egiten zituen bitartean hasi zen German Ereña opera entzuten eta, berehala, Richard Wagner alemaniar konpositorearen lanarekin maitemindu zen. Isidoro Fagoaga Beran jaio zen, eta 1920-40 bitartean Richard Wagnerren operak italieraz abestegatik egin zen ospetsua hainbat herrialdetan (Espainia, Portugal, Frantzia, Argentina, Italia...). Orain dela 80 urte, Gernika bonbardatu zutenean, Isidoro Fagoagak, protesta gisa, abesteari laga zion. Berako Musika Eskolak bere izena darama, eta herri horretan egitarau zabala antolatu dute abeslariaren omenez German Ereñarekin laguntzarekin. Gaur, apirilak 21, erakusketa bat zabalduko da eta apirilaren 28an "Isidoro Fagoaga eta Gernikako bonbardaketa" hitzaldia emango du German Ereñak.

## GERMAN EREÑA:

(Operazalea eta ikerlaria):

# "Isidoro Fagoaga tenore ospetsuak bere ahotsa isiltzea erabaki zuen Gernika bonbardatu zutenean"

*- Eibarko Usartza Txistulari taldeko kidea zarelako ezagutzen zaitugu, baina ez genuen zure zaletasun hau ezagutzen.*

Wagnerren munduan 16 urterekin murgildu nintzen. Armeria Eskolako marrazki teknikoak egiten nituenean musika sinfonikoa eta opera entzuten nuen. Aita ere oso operazalea izan da. Martin de Ugalderen "Hablando con los vascos" liburuan, euskal pertsonaia batzuei egindako elkarrizketen artean, Isidoro Fagoagarena irakurri nuen. Gehien harritu ninduen Gernikako bonbardaketaren ostean Fagoagak izan zuen jarrera izan zen. Apurtxo bat ikertzen hasi nintzen eta urte batzuk geroago, 1986an, Italiatik Fagoagaren diskoa lortu nuen, Jose Ramon Orozko tenorearen -nire aitaren osaba- eta Carmen Telleria bere emaztearen laguntzarekin. Zazpi edo zortzi aria grabatu zituen, oso gutxi da, baina oso errepresentatiboak.

*- Zein izan zen Isidoro Fagoaga eta zergatik izan zen hain ospetsua?*

Wagnerren errepertorioa italieraz abesten zuen Fagoagak eta horregatik bere bizitza artistikoaren zati handi bat Italian eman zuen. Bere espezialitatean onena izan zen. Ezohiko artista izan zen Isidoro Fagoaga. 1893an Berako Agramontea etxean sortua, 14 urte zituela Argentina-ra joan zen, han bizi zen osaba baten etxera bizitzera. Buenos Airesen lanean zegoen bitartean kantua ikasten hasi zen. 19 urterekin, Argentina utzi, eta Italiara joan zen, Milanen eta Parman kantua ikastera.

*Azken 15 urteetan German Ereñak egindako ikerlana oinarri bezala hartu dute Beran, Isidoro Fagoagaren omenezko egitarau zabala antolatzeko.*



Kantu-lehiaketa batean parte hartu eta hirugarren postua lortu zuen. Mundu Gerraren ondorioz, kontserbatorioa itxi, eta Berara itzuli behar izan zuen. Aldizkari txiki batean hasi zen idazten, hori baitzen bere zaletasun handiena. Iruñeko Orfe-

oiarekin hasi zen abesten eta, Nafarroako Diputazioaren beka bati esker, Madrilera joan zen ikasketak bukatzera. 1919an egin zuen debuta hiri hartan bertan, *Sansón y Dalila* lanarekin. Geroago, Jesus Guridiren *Amaya* estreinatu zuen Bilbon,



eta Espainian eta Portugalen *La Walkiria* eta *Parsifal* lanekin bira bana eman zuen.  
**- Italian sekulako arrakasta izan zuen beratarrak...**

Ospea eta ohorea, batez ere, 1925. urtetik aurrera etorri zitzaizkion. Espainia eta Portugalgo antzokietan ez ezik, Argentina, Ameriketako Estatu Batuak, Alemania, eta batez ere, Italiako antzokietan ibili zen. Milango La Sacalako tenor handienetakoa izan zen bi mundu gerren arteko garaian. 1920tik 1940ra arte Wagner asko abesten zen Italian, arrakasta handia zuen. 19 urte eman zituen abesten. Oso karrera intensoa izan zen. Wagnerren errepertorioa oso gogorra da eta, ondo kantatzeaz aparte, ahots potentea izan behar da hainbeste musiko dituen orkestra zeharkatzeko. Erresistentzia ere ezinbestekoa da, Wagnerren operak oso luzeak dira-eta. *Sigfrido* eta *Tristan*, esate baterako, oso pertsonaia zailak dira, maratoni bat egitea bezalakoa da. Holako ekitaldietan 10 bat kilo galtzen zituela esaten zuten Fagoagak (*Nibelungoen eraztunak* 4 opera ditu eta 3 ziklo egiten zituen). Interpretatzaile bikaina zen, itxura dotorearekin. Garai hartako zuzendari handienekin jardun zuen.

**- Esan daiteke orain dela 15 urte hasi zizela burubelarri ikerlanarekin.**

Bai, orain dela 15 urte hasi nintzen bere bizitza sakon aztertzen, txindurri lana egiten. Atzerriko beste ikerlariekin harremanetan jarri nintzen, eta apurtxo bat geroago, 2004an, Iruritan (Baztanen), Fagoagaren iloba baten etxean, abeslariaren objektu eta jantziez betetako bi kutxa handi "deskubritu" nituen.

**- Beraz, Fagoagaren gauzak (emanaldietan erabilitako jantziak, pelukak, objektuak, dokumentoak, kritikak, programak, egunkariak, postalak, argazkiak, makillajea, kontratoak...) luzaroan egon dira kutxa horietan gordeta...**

Banekien kutxa horiek existitzen zirela. Bere famliakoek, baina, ez zioten garrantzi handirik ematen han zegoen material guztiari. Isidoro Fagoaga kanpoan bizi izan zen urte askotan eta, egia esan, ez zuten oso ondo ezagutzen. Kutxak zeuden etxe hartara joan orduko, liburutegi eta artxiboetan ibili nintzen ikertzen eta informazioa batzen. Dena dela, ez nuen asko aurreratzen, eta kutxetara joan nintzenen niretzako ia mirari bat izan zen. Kutxa horietan bere gauza guztiak ondo gordeta laga zituen Fagoagak. Berak idatzitako guztia ere bertan zegoen.

**- Gernikako bonbardaketarekin Isidoro Fagoagak bere ahotsa betirako isildu**



*Ezkerreko argazkian, Isidoro Fagoaga tenorea. Abeslariaren ilobaren etxean gordeta egon diren kutxak (eskumako argazkia) ezinbestekoak izan dira German Ereña eibartarrak egin duen ikerlanean. Bildutako guztiarekin liburu bat argitaratzeko asmoa dauka.*

**zuen, eta erabaki hau da, hain zuzen ere, hasiera-hasieratik gehien erakarri zintuena.**

Gernika bonbardatu zutenean bera oraindik gaztea zen, 44 urte zituen, eta beste 10 urte edo jarrai zezakeen abesten. Bonbardaketa izan zenean Italian zegoen abesten eta berarendako oso gogorra izan zen Italiako herria Francori laguntzen ziola ikustea. Gehiago ez abestea eta handik alde egitea erabaki zuen. Donibane Lohizunen erbesteratu eta han hasi zen berriro ere idazten. Lapurdiko Pedro eta Domingo Garat-en inguruan ikertzen hasi zen. Garatarak Iparraldeko askatasunaren ikurrak izan ziren. Segiduan Bigarren Mundu Gerra hasi zen, eta Frantziako agintariek Gurs-eko kontzentrazio-esparruan sartu zuten Euskal Herriko beste errefuxiatu askorekin batera. Hango bizitza baldintzak penagarriak ziren. Oso harrigarria da bere erabakia. Oso ospetsua zen garai hartan, asko irabazten zuen, batez ere errepertorio horrekin espezializatua zegoelako. Antzokiz antzoki ibiltzen zen. Oso ospetsu izatek kontzentrazio-esparru batera pasatu zen eta hau oso gogorra da. Apaltasuna, elkartasuna, zintotasuna eta abertzaletasun handia erakutsi zuen. Bere herriarekin konprometitu zen eta hori ere azpimarratzekoa da.

**- Zer gertatu zen Gurs-etik irtetzera-koan?**

Handik aterata, literaturan jardun zen, nagusiki. Euskal pentsamenduaren eta Euskal Herriaren baloreen erreferentia izan zen *Cuadernos Gernika* aldizkari humanistaren berrantolaketa, sustapenean eta argitalpenean parte hartu zuen. 1951n Buenos Airesera erbesteratu zen, eta bertan argitaratu zuen bere lehenbiziko liburua, *Pedro Garat, el Orfeo de Francia*. Idazten aritu zen, nagusiki, hu-

rrengo urteetan. Denetara sei liburu argitaratu zituen, eta hainbat artikulua idatzi zituen aldizkari eta egunkari ugarietan. Euskal Herrira itzuli zen 1964. urtean, eta Donostian bizi izan zen 1976an hil zen arte. Berak abesten zuen errepertorioa ez da operazale guztien gustukoa, eta agian horregatik ez da izan hain ezaguna. Garai hartako egoera politikoa ere ez da bate-re lagungarria izan.

**- Zer antolatu dute Beran Fagoagaren omenez?**

Lan ikaragarria egin du Beran sortutako "Isidoreoren Lagunak" taldeak eta, Berako Udalarekin elkarlanean, hurrengo hilabeteetarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte: erakusketa, hitzaldiak, musika emanaldiak, mahai-ingurua... Nik urte guzti hauetan egindako ikerlana laga diet hau guztia egiteko. Erakusketan nire ikerlanean bildutako gauzak izango dira: eskaneatu ditudan 2.000 dokumento baino gehiagotan garai hartako egunkarietan agertutako informazioa, argazkiak, beste artista batzuen autografoak, gutun pila bat, errepresentazio guztietako programak, errepartoak, kritikak... horiek denak jasotzen dira. Hori guztia gehienbat kutxetan agertu zenarekin lortu dut, baina horretaz gain harremanetan jarri behar izan nintzen Italia, Txile, Argentina, Estatu Batuak, Mataro eta hainbat lekutako ikerlariekin. Bestalde, bere ondasun guztiak Berara eraman nahi dira.

**- Badago hemen inguruan Wagnerren lanak entzuteko aukerarik?**

Wagner oso gutxi entzuten da hemen, batez ere Bartzelonara edo Madrilerara joan behar duzu. Ez da erraza. Alemanian, Bayreuth-en, Wagnerrek antzoki berezi bat eraiki zuen. Wagnerzaleentzako santutegi bat da eta noizean behin hara joaten gara. Aurten ere joateko asmoa daukat.





**JIMMY BARNATAN**  
(musikaria)

– *'Bourbon church' diskoa aurkeztera zatorz Portalera. Aste Santuan elizara joan ez direnentzat aukera berria?*

(Barreak) Bai, tira, gure eliza nahiko ezberdina da. Gure elizara (teorikoa) 12:00etako mezetara sartuko zinateke, baina gaueko 12:00etarako. Gurean kaliza sakabanatuagoa egongo da, ez da jauna hartzera joan behar eta, seguraski, ez da mezetan ipintzen duten ardo gogaikarri gozo hori banatuko, 'bourbona' baizik.

– *Zuretzat ez da berria elizaren kontu hau, umea zinenean Harlemgo gospel mezetara joana baitzara.*

Nire amama New Yorken bizi izan zen urte askotan eta umea nintzenean Harlemen izan nintzen gospel mezak ikusten, turismoa egiten nuen bitartean, baina gehiago murgiltzen hasi nintzen bertan eskaintzen zen ikuskizunarengatik. Predikari

## "Benetako debozioa dago blues eta soularen inguruan"

Portaleak meza berezia jasoko du domekan. Saioa 19:30etan hasiko da eta 'Jimmy Barnatan & The Cocooners' izango dira ekitaldiaren gidariak. Tartean, gospel giroa izango duten blues doinuak 'The Cocoonettes' emakume korista taldearekin. Barnatanek txikitan Harmlemen jasotako musika hartu eta gau magiko eta dibertigarria eskainiko die Coliseoan batuko diren debotoei.

horiek ikustean, inoiz ikusi ditudan 'frontman' onenak, gospelaren munduan gehiago murgildu eta bakarrik joaten hasi nintzen. Koroak abesten zituen kantuak eza gutzen joan nintzen eta, behin, elizako atean zegoen laguntzaileetako batek esan zidan ondo abesten nuela eta ea hurrengo domekan koroarekin abestuko nuen. Abestu nuen eta, meza amaitu ostean, musikari batek eurekin 'Jam session' batera 'Arthur's tavern'-era (7. etorbidea 'Groove street'-ekin) joan nahi nuen esan zidan. "Noski joango naizela!" esan nien, eta berak orduan: "Eliza ezagutu duzu, orain egia ezagutuko duzu".

– *Portalea Harlemgo eliza bihurtuko duzu?*

Ez da hori gure asmoa. Harlemko elizak oso ondo daude bertako sermoi amaigabeak eta hain ondo txirikordatu-

tako musika entzuteko, baina gure eliza ilunagoa da, gaueko deserrotuentzat, gure herrian rock&rolla entzuten dutentzat (tamalez multzo txikia), bluesa eta soula entzuten dutentzat... azken finean, eliza horietan tokirik ez dutentzat egin dugu gurea.

– *Blues eta rock&roll sinesdunentzat egingo duzue ikuskizuna?*

Denak dira ongi etorriak gure etxera (barreak). Badakigu blues eta soularen publiko-multzoa ez dela handia, baina oso fidelak eta hermetikoa da. Erljio baten antzekoa dela esango nuke, genero honekiko benetako debozioa dagoelako.

– *Eibarko publiko fidela zain izango duzu.*

Gau magiko eta dibertigarria izatea espero dut. Domeka gaua izan behar den modukoa izaten saiatuko gara.

## Hasi da Nagusien XXIV. Hamabostaldia

Atzo aurkeztu zuten Pertsona Nagusien XXIV. Hamabostaldia gaur goizean hasi dute, ekitaldi ofizialarekin. Egitaraua, berriz, astelehenean abiatuko da, 18:00etan Jaione Yeregik Untzagako jubilatutako emango duen "Pertsona nagusiendako elikadura orekatua eta egokia" hitzaldiarekin (eguztenez hitzaldi bera errepikatuko dute, 17:00etan Ipuruako jubilatutako emango duen). Martitzenerako Orduñara txangoa antolatuko dute eta eguztenez arratsalderako, berriz, pentsioen aldeko kontzentrazioa deitu dute, 19:00etan Untzagan. Datorren asteko azkena eguztenez izango da: trena goizean hartu eta Debara joango dira, Juan Luis Murgazaren oroimenez ibilaldia egitera.



## Eguen Zuri argazki lehiaketako lanak ikusteko azken eguna

Aurreko asteko eguztenez eman zituzten Arrate Kultur Elkarteak antolatutako Eguen Zuri argazki lehiaketako sariak: lehena Bakarne Elejaldek eraman du, Kanariar irletara egindako bidaia aprobetxatuta egindako argazkiari esker; bigarrena, berriz, Javier Yarnos iruñarrarentzat izan da; eta hirugarrena iazko irabazleak, Oscar Blanco eibartarrak eskuratu du. Sariak banatzearekin batera erakusketa inauguratu zuten Topalekuan, lehiaketan parte hartu duten 11 argazkilarien lanekin. Gaur izango da ikustera joateko azken eguna eta horretarako Kultu tabernatik sartu behar da.





## Jasone Osoro "12etan bermuta" sinatzen egongo da gaur

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira euskal literaturari lotutako hainbat jarduera ireki antolatu ditu Eibarko El Corte Inglesak, 3. solairuan berriki zabaldu duten euskal literaturaren gunean. Batetik, gaur 18:00etan Jasone Osoro idazle elgoibartarrak "12etan bermuta" bere liburu sinatuko die hala nahi duten irakurleei. Eta bihar, berriaz, Eneko Haritzak ipuin-kontakizun saioa eskainiko du, euskeraz, 18:00etatik aurrera. Apirilaren 23a mundu mailan Liburuaren Nazioarteko Eguna gogoratzeko eguna da. Izan ere, halako egun batean hil ziren Cervantes, Shakespeare eta Inca Garcilaso de la Vega 1616. urtean eta, beste idazle esanguratsu batzuk ere apirilaren 23an jaio edo hil direnez, liburuak eta idazleak omentzeko eguna hori izatea erabaki zuen UNESCOk.



## Artisten bi belaunaldiren lanak Portalean ikusgai

Portaleko erakusketa aretoan belaunaldi biren artelanak ikusteko aukera dago, aldi berean martxan dauden bi erakusketetan. Batetik, Eibarko Artisten Elkarteko 45 bat kideren artelanak domekara arte egongo dira ikusgai. Eta, bestetik, Institutuan Arte Batxilergoa ikasten ari diren gazteen artelanak biltzen dituen "Eibarko Ignazio Zuloagaren egungo islak" izenekoa apirilaren 30era arte egongo da zabalik, betiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

## "Cinderella" ikuskizunaren proiektzioa

Bihar arratsaldean, 19:45ean, "Cinderella" (The Australian Ballet, The Arts Center, Melbourne) ikuskizuna eskainiko dute Coliseoan, 2. aretoan. Version Digital Diferidos-en eskutik proiektatuko



duten lanak bi ordu eta laurdeneko iraupena dauka eta koreografia Alexei Ratmansky-rena da. Musika, berriaz, Piotr Ilich Tchaikovskyk idatzi zuen. Sarrerak 9 euro balio du (5'5 euro, Coliseoaren Laguna txartelarekin).

## Gozatu Gipuzkoa bihar Urkizun

Zapatuan, goizeko 11:30ean hasi eta 15:00ak bitartean, Gozatu Gipuzkoa izeneko ekimena hartuko du Urkizuko parkeak. Egitarauaren barruan, besteak beste, pintxo lehiaketa, azoka gastronomikoa, espazio kulturalak eta baratza didaktikoa egingo dituzte. Ekimenean parte hartuko duten establezimenduak Birjiñape, Guridi Rugby & Mugika Harategia, Maixa, Zubigain, Aguiñaspi, Arkupe eta Sutondo dira.



## Periko Iriondoren ikus-entzunezkoa

Eguaztenean, 19:30ean "Bizkaiko Birako 7. etapa" ikus-entzunezkoa eskainiko dute Klub Deportiboan. Emanaldian ikusiko diren irudiei buruzko azalpenak egileak berak, Periko Iriondok emango ditu.



## PAKITA ODRIOZOLA AGIRREBEÑA (Jenaro Garateren alarguna) - I. URTEURRENA

URTEBETE DA DAGOENEN AGURTU ZINTUGUNETIK  
ETA GURE BEGIAK BUSTI EGITEN DIRA ORAINDIK  
ETXEKOEK EZ ZAITUGU AHAZTUKO

Hilaren 22an, zapatuan, meza ospatuko dugu San Pio X. elizan, 19:00etan





IRATXE GIMENEZ

## Kutzazain magikoa

Mikelek 18 urte zituen lehenengo aldiz kutxazain automatiko baten aurrean jarri zenean. Bere aitaren izena Txiro zen eta amarena Urri. Irakaslearena berriz, Telebista. Egun gutxi batzuk zeramatzan Katalunian eta askotan bere irakasleak erakutsitako mirariaren zain zegoen. Zenbait minutu zeramatzan pantailari begira baina dirua ez zen ateratzen. Botoiak sakatzen zituen, kaja kolpekatu baina ezer ez...berarentzat sosik ez.

Ondoren lapurtuko zituen pertsonak sartzen ziren kajerora. Gaizki begiratzen zuten eta baztertzeko eskatzen zioten. Hauek behatuta konturatu zen magia egiteko txartela eta fondo bat behar zuela. Bere herrian zegoenean, bere irakasleak ez zion Europari buruzko egi guztia esan.

Ramblasetan lapurrentzat lekurik ez dagoenez espetxean bukatu zuen Mikelek. Bertan Jon ezagutu zuen. 35 urteko gizon errukitsu eta liderra, bere kultura berdinekoa".

Zure egoeraren erru guztiak herri ustel honek du, Mikel. Etorri nirekin. Sartu zaitez nire erakunde. Babestuko zaitugu. Gutako bat izango zara eta ez zara berriz ere bakarrik sentituko"

Aldatu izen euskaldunak eta jarri izen arabeak aurreko lerroetan eta epaitegi batean entzundako istorio erreala bat izango duzue. Estatuan harrapatu den yihadista arriskutsuenetako baten ahotik irtendako bizipenak dira. Aurreko egunetan Estatu Islamiarrari atzemandako barne zirkular bat argitaratu dute egunkariak. Jarraitzaile berriak izateko beste perfil bat zirikatze eskatzen zaie gizon-ehizari: kultura eskaseko jendea eta islama gutxi ezagutzen dutenak. Horiexek behar ditugu gure gerrarako. Hitz hauek Mikelen historia ekarri didate burura.

## Josean Blanco "Perroantoniok" liburua aurkeztuko du astelehenean

Astelehen arratsaldean, 19:00etan, "Te voy a hacer una autocrítica. Diccionario para entender a los humanos" (Trama Editorial, Madril, 2016) liburua aurkeztuko dute Portaleko areto nagusian. Ekitaldian Jose Antonio Blanco ("Perroantonio") liburuaren egilea egongo da eta aurkezpena, berriz, Antonio Rivera EHUko Historia Garaikideko Departamentuko katedratikoak egingo du. Josean Blanco (Barakaldo 1961) filologoa eta kazetaria da eta 1994az geroztik Eibarren bizi da. Liburu honen aurretik ere beste lan batzuk eman ditu argitara: "Dermatológicas" eta "Otros poemas" (Pamiela, Iruña, 1986) eta "Thriller" (Laida, Bilbo, 1990). Datorren astean aurkeztuko duen lana, berriz, "Perroantonio" gaitzizenarekin kaleratu du. Egilearen berbetan, "umorezko definizioz eta definizio sarkastiko eta ironikoz osaturiko hiztegi bat da. Nire helburua irakurlea barez jartzea edo hasarreraztea ere izan daiteke".



## Argazkilaritza Maiatzean ate joka Jon Gorosperen tailerrarekin

Klub Deportiboko argazkilaritza batzordearen eskutik garatuko den Argazkilaritza Maiatzean-eko egitarauaren barruan Jon Gorospek "El proyecto fotográfico" izenburuko tailerra emango du maiatzaren 13an Portalean. Antolatzaileen berbetan, "zeri atariko diot argazkia? Generoa, ikuspuntua, zer kontatuko dut? Nola eta non izan ikusia? Tailerra beraien hizkuntza pertsonala bilatu nahi duten argazkilari guztiei zuzenduta dago, proiektu edo erreportaje bat egin eta argazki-narratibaren ohiko kodeak ezagutu nahi dituztenentzat pentsatutakoa da". Tailerrak 8 orduko iraupena izango du (10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara) eta prezioa 20 eurokoa da. Izena emateko argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzi daiteke (plaza muga dago).

## Larrain dantza ikastaroa hasiko da datorren astean Arrate Kultur Elkarte

Urteroko martxan maiatza amaieran Euskal Jaia ospatuko dugu eta, horren harira, aurten ere larrain dantza ikastaroa antolatu dute Arrate Kultur Elkarteok, ikasi nahi dutenentzat. Saioak datorren astelehenean hasiko dira eta ikastarorako izena eman nahi duenak 943202299 telefono zenbakira deituta edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita izango du horretarako aukera.





### Memoriaren ganbaratik dokumentala DEBAN

Gaur 18:00etan 'Memoriaren ganbaratik' dokumentala emango dute Deban, Agirre Jauregiko Ispilu Gelan, Debatziar Memoria Egiten elkarteak, Taupada antzezlan taldeak eta Elgoibar 1936 Ahaztuen Elkarteak. Dokumentala 1936ko irailean 21ean Elgoibarren tropa faxistak herrian sartu zireneko 80. urteurrena oroitz egindako errekreazioa da.



### Kaskezur eta Vidus, Soraluzeko gaztetxean

Batzango Kaskezur eta Batzelonako Vidus taldeak izango dira gaur Soraluzeko Gaztetxean, gaueko 22:00etatik aurrera. Kaskezur taldeak 'Azipisugeak', euskaraz abestutako pop doinu landuekin osatutako diskoa aurkeztuko du. Vidus taldeak, berriz, 15 urtetik gorako ibilbidea dauka. Sarrera doan izango da eta barra zabalik egongo dela jakinarazi dute antolatzaileek.



### Antzinako automobilak ERMUAN

Domekan, 11:00etatik aurrera aintzinako kotxeen topaketa hartuko dute Ermuko kale eta plazek. Lehen aldiz egingo den topaketa Gaztela-Leoneko Kultur Zentruak antolatu du, Gaztela-Leoneko Egunaren harira.

### eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

### hildakoak

- M<sup>a</sup> Carmen Berakoetxea Egiguren. 78 urte. 2017-IV-5.
- Celestino Saez Lopez. 85 urte. 2017-IV-6.
- M<sup>a</sup> Isabel San Jose Mayo. 99 urte. 2017-IV-6.
- Juanita Unzueta Garcia. 95 urte. 2017-IV-6.
- Iñaki Landa Odriozola. 83 urte. 2017-IV-6.
- Francisco Gabilondo Etura. 79 urte. 2017-IV-7.
- Jose Antonio Aranberri Eriz. 75 urte. 2017-IV-7.
- Rafael Treviño Ibarzabal. 64 urte. 2017-IV-7.
- Jose Toston Santiago. 94 urte. 2017-IV-8.
- Dolores Arrieta Bergaretxe. 96 urte. 2017-IV-9.
- Jesus M<sup>a</sup> Elorza Zubiaurre. 81 urte. 2017-IV-11.
- M<sup>a</sup> Paz Larrañaga Aranzabal. 94 urte. 2017-IV-13.
- Ana M<sup>a</sup> Quintana Sanchez. 85 urte. 2017-IV-14.
- Francisca Irimia Espeso. 84 urte. 2017-IV-15.
- Maritxu Olarra Olazagirre. 88 urte. 2017-IV-17.
- Fernando Vazquez Martinez. 71 urte. 2017-IV-18.
- M<sup>a</sup> Tere Alberdi Oyanguren. 65 urte. 2017-IV-18.
- Isabel Caballero Pernia. 92 urte. 2017-IV-18.

### jaiotakoak

- Maher Mohamed El Aissati. 2017-IV-3.
- Jana Bouzeimad. 2017-IV-3.
- Javier Lopez Carballo. 2017-IV-4.
- Luis Francisco Lopez Muñoz. 2017-IV-5.
- Julen Alegria de la Hoz. 2017-IV-7.
- Markel Prol Rodriguez. 2017-IV-8.
- Maddi Arregi Sanjurjo. 2017-IV-12.
- Malen Olaeta Bolinaga. 2017-IV-14.
- Unai Salcedo Santos. 2017-IV-16.

3	2	6	1	5	7	9	4	8
8	5	4	6	3	9	1	7	2
7	9	1	2	8	4	3	6	5
9	6	7	8	1	5	4	2	3
2	8	5	9	4	3	6	7	1
4	1	3	7	2	6	5	8	9
6	7	2	3	9	8	1	5	4
5	3	8	4	7	1	2	9	6
1	4	9	5	6	2	8	3	7

### AURREKOAREN EMATZA

### SUDOKUA

				4			1	
9		5				7	8	
6	4		8					
			7			6		
7	1			4			5	2
		8			1			
					5		2	3
	3	4				9		5
5			9					

### farmaziak

- Barixakua 21  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Zapatua 22  
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 23  
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 24  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Martitzena 25  
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 26  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 27  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 28  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI - 2017AN-  
 Mandiola (S. Agustin, 3)

### telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63



## Barixakua 21

### LIBURU SINAKETA

**18:00.** Jasone Osorok "12etan bermuta" bere liburua sinatuko du. El Corte Inglesean (euskal literatura gune berrian, 3. solairuan).

## Zapatua 22

### JENDE XUMEA

**11:00/14:00.** Tonbola, txosna, bidezko merkataritzako stand-a eta umeentzako jolasak. Umeentzako jolasak. Untzagan.

### GOZATU GIPUZKOA

**11:30/15:00.** Pintxo lehiaketa, azoka gastronomikoa, espazio kulturalak eta baratza didaktikoa. Parte-hartzaileak: Birjiñape, Guridi Rugby & Mugika Harategia, Maixa, Zubigain, Aguiñaspi, Arkupe eta Sutondo. Urkizun.

### MUSEOA

**17:00.** Doako bisita gidatua, euskaraz (18:30ean gazteleraz). Armagintzaren Museoa.

### IPIIN-KONTAKETA

**18:00.** Euskaraz, Eneko Haritzaren eskutik. El Corte Inglesean (euskal literatura gune berrian, 3. solairuan).

## Domeka 23

### KONTZERTUA

**19:30.** Jimmy Barnatan & The Cocooners. 10 euro. Portalean.

## Astelehena 24

### BIOENERGIA JARDUNALDIAK

**15:30.** "Plan de gestión de la biomasa. Uso de los recursos propios del monte municipal", Andres Fernandez eskutik (Abadiñoako Udala).

**16:30.** "Visión práctica y comercial del aprovechamiento con fines energéticos de la biomasa", Josu Azpitarteren eskutik (Biotermiak). Sarrera librea. EHU-ko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan (unibertsitatean).

### LIBURU AURKEZPENEA

**19:00.** Jose Antonio Blanco "Perroantonio"-ren "Te voy a hacer una autocrítica. Diccionario para entender a los humanos". Aurkezlea: Antonio Rivera. Portalean.

### GURE ESKU DAGO

**19:00/21:00.** Gure Esku Dagok deituta maiatzaren 7an egingo den herri-galdeketerako bozka aurreratua. Arrate Kultur Elkartearen.

## Martitzena 25

### BONBARDAKETAREN 80. URTEURRENA

Egun osoan "tranpantojo" bat egingo da Egogain kalean, bonba batek jo zuen tokian.

### IKASTEN

**10:00.** "Euskal Herriko Ahotsak: euskal hizkerak eta ahozko ondarea" (euskeraz). Hizlariak: Aintzane Agirrebeña eta Idoia Etxeberria. Armeria Eskolan.

### HITZALDIA

**14:30.** "Eskola jazarpena. Zer egin dezakegu gurasook?". Hizlaria: Nerea Mendizabal psikopedagogo, Gizarte eta Haur Masajeko Hezitzailea eta Komunikazioan aditua. Portalean.

### BIOENERGIA JARDUNALDIAK

**15:30.** "Iniciativa de colaboración con Ayuntamientos, HAZI y EVE para el fomento de la utilización de biomasa con fines energéticos. Casos de estudio", Sergio Lopez eskutik (EVE).

**16:30.** "La madera, un combustible de presente y futuro en Euskadi", Iñaki Gerenabarrenaren eskutik (Hazi Fundazioa). Sarrera librea. EHU-ko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan (unibertsitatean).

### IKASTEN

**16:00.** Puntu tailerra.  
**17:00.** Joskintza tailerra. Portalean.

### GURE ESKU DAGO

**19:00/21:00.** Gure Esku Dagok deituta maiatzaren 7an egingo den herri-galdeketerako bozka aurreratua. Arrate Kultur Elkartearen.

### HITZALDIA

**19:30.** "Reflexiones sobre la guerra civil", Juan Pablo Fusi Aizpuruaren eskutik. Coliseo antzokian.

## Eguaztena 26

### IKASTEN

**11:00.** Kafe-tertua: "Zer gertatzen da itsulapikoarekin?". Untzagako jubilatutako etxean.

### GURE ESKU DAGO

**19:00/21:00.** Gure Esku Dagok deituta maiatzaren 7an egingo den herri-galdeketerako bozka aurreratua. Arrate Kultur Elkartearen.

### IKUS-ENTZUNEZKOA

**19:30.** "Bizkaiko Birako 7. etapa", Periko Iriondoren eskutik. Klub Deportiboan.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 27

### IKASTEN

**10:00.** "Buelta bat munduari 120 egunetan". Hizlaria: Arrate Iraolagoitia (Equilia). Armeria Eskolan.

### KALEETAN KANTUZ

**17:45.** Kaleetan Kantuz dantzak. Untzagako jubilatutako etxean.  
**19:30.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

### HITZALDIA

**19:00.** "Herri galdeketak eta erabakitze eskubidea", Gure Esku Dagoren eskutik. Hizlariak: Garbiñe Biurrun, Juan Jose Ibarretxe eta Mario Zubiaga. Moderatzailea: Jon Telleria. Armeria Eskolako areto nagusian.

### EKINGUNEREN PINTXO-POTEA

**19:00.** "Negozio proiektuen kudeaketan 'hodeiari' etekina nola atera?". Arrate Kultur Elkartearen.

### KALERATZEAK STOP

**19:00.** Kaleratzeak Stop plataformako bilera irekia. Portalean.

## Erakusketak

**Apirilaren 21era arte: XX. EGUN ZURI** argazki lehiaketa. (*Topalekua*)

**Apirilaren 22ra arte: "MIRADORES" LUCENA MORALEN** argazkiak. (*El Corte Ingles*)

**Apirilaren 23ra arte: EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA.** (*Portalea*)

**Apirilaren 30era arte: CRISTINA DE ARRIBASEN** argazkiak. (*El Ambigu taberna*) / **JOSE IGNACIO DE CASTROREN** argazkiak. (*Portalea jatetxea*) / "EIBARKO IGNACIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK". (*Portalea*)

**Maiatzaren 2ra arte: "BONBARDAKETA EIBARREN".** (*Topalekua*)

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**




Ongi etorri, JULEN Alegria De la Hoz, hillaen 7tik gurekin zagoz-eta. Laztantxo bana umiari, amari eta aittari etxekuen partez.




Zorionak, MARKEL Lasuen, txapeldun, gaur bost urtetxo betetzen dozuz-eta. Patxo potolua aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, NOA!, astelehenian zazpi urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat eta oso ondo pasa eguna!



Zorionak, LIBE, hillaen 16xan urtetxua bete zenduan-eta. Patxo haundi bat etxeko danon eta, batez be, nebe Lukenen partez.



Zorionak, NAIA, gaur bost urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat aitta, ama eta Iratiren partez.



Zorionak, amama MARIA LUZ! Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Suhar eta Julenen partez.



Zorionak, OSKAR (atzo) eta NAHIA (bixar, zortzi urte), zeuen urtebetetzian. Ondo-ondo ospatu! Laztan haundi bana.



Zorionak, ARRATE!! (gaur 12 urte egingo dozuz) eta MIKEL (hillaen 5ian zazpi bete zenduaz). Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, GARAZI (hillaen 18xan, 15 urte) eta NAIA (hillaen 24an, 17 urte). Musu haundi bat etxeko guztien partez!



Zorionak, MARKEL eta LUKEN, zuen 9. eta 5. urtebetetzietan!! Muuuaa!! Musu haundi bat eta besarkada potolua famelixa guztiaren partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**22an: 17:00, 19:45, 22:30 (Ant)**

**23an: 17:00, 20:00 (Antzokia)**

**24an: 20:30**

**"Negación"**

Zuzendaria: Mick Jackson



**(2 ARETOAN)**

**22an: 17:00, 19:45 (Ant), 22:30**

**23an: 17:00, 20:00**

**24an: 20:30 (Antzokia)**

**"Fast & Furious 8"**

Zuzendaria: P. Gary Gray



**(1 ARETOAN)**

**22an: 22:30**

**23an: 20:00**

**24an: 20:30 (2 Aretoa)**

**"Primer ministro"**

Zuzendaria: Eric Van Looy



**(ANTZOKIAN)**

**22an: 17:00**

**23an: 17:00**

**"El bebe jefazo"**

Zuzendaria: Tom McGrath





**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Pisua alokatzen dut Eibarren. Mugikortasun-arazoak dituztenentzat egokitueta. Tel. 670-251253.
- Pisua hartu nahi dut alokairuan. Tel. 631-649850.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Garajea alokagai Eibar erdialdean (Untzagan). Tel. 606-083992.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-613245.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-493242.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak egin... Tel. 634-209087.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-204426.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Hezkuntza titulua, EGA eta esperientzia. Tel. 688-639371.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 662-252150.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduzabala. Tel. 679-152114.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduzabala. Tel. 649-626975.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 692-314985.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaindu ospitalean... Baita asteburuetan ere. Tel. 606-906729 eta 693-232959.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 631-910326.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 612-482203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 634-446252.
- Neska eskaintzen da orduka garbiketak egiteko eta gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 642-650900.
- Gizona eskaintzen da margolari edo igel-terro moduan eta tabernan lan egiteko. Tel. 642-650816.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-288967.

- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Baita asteburuetan eta gauzez ere. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-273664.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gida-baimenarekin. Tel. 650-029176.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-978777.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-286792.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 636-302237.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-061103.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 6 urteko esperientzia Alzheimer gaixoein. Gida-baimenarekin. Tel. 688-619277.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 648-010982.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 666-720266. Dunia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernak eta pegorak garbitzeko. Tel. 632-228105.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernak eta pegorak garbitzeko. Tel. 632-334008.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernak eta pegorak garbitzeko. Tel. 631-013153.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-247899.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 664-895861.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 665-974354.
- Gizonezkoa eskaintzen da peoi, zaindari, garbitzaile... moduan lan egiteko. Tel. 631-649850.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 635-441920.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 628-318570.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-193840.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 631-887341.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-737903.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 653-156403.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Tel. 653-010861.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-204245.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-935160.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 648-470485.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-286792.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 664-225040.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldelaguntzaile jarduteko. Tel. 634-437852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 690-134485.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 617-537421.

## 4.2. Langile bila

- Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko. Tel. 676-006915.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- Eibarko Kids and Us-ek irakasleak behar ditu 2017-18 ikasturterako. Ingeles maila altuarekin (C1 titulua gutxienez) eta umeek gogoko izatea eta inplikazioarekin. Curriculum: direccion.eibar@kidsandus.es

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailetako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Ohe artikulatua salgai. Oso egoera onean eta guarekin. Tel. 94-4305487.
- Mobil-homea (42 m<sup>2</sup>) salgai Bañaresen (Errioxa). Teilatu bikoitza, 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna dutzarekin. Aire egokitua. Prezio interesgarria. Deitu 20:00etatik 22:00etara. Tel. 943-031477.
- Rin Gway piano elektrikoa salgai. T68838 modeloa. 350 euro, negoziagarriak. Tel. 647-155908.
- Lehen jaunartzerako soinekoa salgai. Ia erabili gabe. Prezio onean. Tel. 653-010861.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

# 25. URTEURRENEKO EDIZIO BEREZIA

## 5.000€-RAINOKO DESKONTUA



Hyundai dagoeneko 25 urte bete ditugu zure ondoan. Eta zure aldamenean egindako denboran, munduko 5 Fabrikatzaile onenetakoen artean kokatu gara, 3. Marka fidagarriena bihurtu eta hirutan Espainiako Urteko Autorik Onena izateaz gain. Hori ospatzeko, eta gure urteurrena amaitu baino lehen, 25. Urteurrenoko Edizioa kaleratu dugu, aparteko ekipamendua eta 5.000€-rainoko deskontua dituen edizio berezia.

**Hurbil zaitetz hilabete honetan zure kontzesionariora eta ospatu egizu gurekin.**



**OARSO CAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO  
WWW.OARSOCAR.COM

**ELGOIBAR**  
Olaso Polig., 17 943 74 14 80



Hyundai Tucson Gama: CO<sub>2</sub> Emisioak (gr/km): 119-147 Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-6,3.  
ix20 Hyundai Berria Gama: CO<sub>2</sub> Emisioak (gr/km): 110-130. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,2-5,6.  
i20 Hyundai Berria Gama: CO<sub>2</sub> Emisioak (gr/km): 97-102. Kontsumo mistoa (l/100km): 3,7-4,8.

25. Urteurrenko Hyundai i20 1.1 CRDI 75CV (55,2kW)-ari gehiezenko deskontu aplikagarria. Sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta berria erositakoan Hyundai auto bat entregatzenaren aplikagarria den Zure Hyundai Berrizko Deskontua berne. Eskaintza 2017/04/30era arte da baliozuna. 3. marka fidagarriena, 2016ko JD POWER-en arabera. \*Hyundai Motor España S.L.U.-k km mugarik gabeko 5 urteko Hyundai berriei komertziala Hyundai Kontzesionarioen Sare Ofizialean erositako autoetan soilik aplikatuko da, zerbitzu pasaportak dioten termino eta baldintzetan. Buzailatutako modeloko Tucson 25. Urteurrena, ix 20 25. Urteurrena, i20 25. Urteurrena. Bermearen eta eskaintzaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es helbidean galdetu.

### OIARTZUN

Lintzirin Poligonoa, 1 943 49 48 30

### BEASAIN

Errepide Nazionala, 1 943 80 40 54

### IRUN

Juan Thalamas, 43 943 63 97 69



# Ignacio Zuloaga Institutua

**EIBAR**

Ate irekien eguna

**Apirilak 26**

Ordua 18:00

**Batxilergoak:** Arteak - Giza eta Gizarte Zientziak - Zientziak



Elkartrukea



Alemaniko Balingen ikastetxearekin



Jardiñeta 3 Eibar · Tel.: 943208349 · Fax: 943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail: 012055aa@hezkontza.net





# Kia Rio berria Orain, zuk erabaki.



The Power to Surprise

Kia Rio berriaren diseinu, teknologia eta espazioa ezagutzen dituzunean zalantza guztiak uxatuko zaizkizu. Erraza egingo zaizu erabakia hartzea.

**Kia Rio berria 9.970€-tik aurrera**

## **NAIA CAR**

Apalategi Auzoa, 1 • 20600 Eibar. Gipuzkoa • Tel: 943 70 70 33 • [www.naiacar.com](http://www.naiacar.com)

**Kontsumo konbinatua (l/100 km): 3,5-4,8. CO<sub>2</sub> emisioak (g/km): 92-109.**

PSP gomendatua Kia Rio 1.2 CVT Concept Eco-Dynamics (zergak, garraloa eta sustapen-ekintzak barne). Gestoria eta matrikulazioko gastuak ez daude barne. Eskaintza aplikagarria Flexible Range Finance kanpainaren bitartez Santander Consumer EPC S.A.-rekin gurbenez 8.000 €, 48 hilabeteko gurbeneko epean eta 36 hilabeteko gurbeneko egonaldiarekin, finantzatzen duten bezero partikularrentzat. Eskaintza hau ez da beste finantza-eskaintza batzuekin bateragarri. Eskaintza 2017/04/30era arte balioduna Penintsula eta Balearretako kontzesionarioetan. Finantziario finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Kontsultatu baldintzak [www.kia.com](http://www.kia.com). Iragarkian erakusten den modeloa ez da eskaintzakoa. \*Kontsultatu Kia bermearen eskuliburua.